

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko trafikoa, zirkulazioa eta bide-segurtasuna arautzen duen udal ordenantza.**

Bermeoko Udalak 2018ko azaroaren 28an egindako osoko bilkuran, Bermeoko trafikoa, zirkulazioa eta bide-segurtasuna arautzen duen udal ordenantza hasiera batean onartu zuen. 2018ko abenduaren 12ko BAPn hasiera batean argitaratuta, alegaziorik ez denez jaso, behin betiko onartu da, honela:

Bermeon, 2019ko urtarrilaren 22an.—Alkatea, Idurre Bideguren Gabantxo



**BERMEOKO TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA  
ETA BIDE SEGURTASUNA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA  
XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua**

Ordenantza hau toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25.2.g) artikuluan eta urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua udalei trafiko eta zirkulazioaren arloan ematen dien eskumenaren arabera ematen da, baita udalerriko bideen trafikoaren eta erabileren gaur egungo egoerara nahitaez egokitzeko beharrari erantzuteko ere, lege hauek aplikatu behar direlako:

- 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, Trafikoaren, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, ibilgailuen araudi orokorra onartzen duena.
- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazioaren Araudi Nagusia onartzen duena.
- 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, gidarien araudi orokorra onartzen duena.
- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 20/2017 Errege Dekretua, urtarrilaren 20koa, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuen kudeaketari buruzkoa.
- 920/2017 Errege Dekretua, urriaren 23koa, ibilgailuen azterketa teknikoa arautzen duena.
- DGTren 16/V-124 instrukzioa.

**2. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Ordenantza honek hiri barneko herri-bideen, herri-erabilerako jabetun bideen erabileren araupetzea ezarri, erabilera horiek antolatu, trafikoa zaindu eta kontrolatu, arau-hausketak salatu eta zigortu eta mugiezin jartzeko arretazko neurriak hartzea, erabilera publikoko bideetatik ibilgailuak kendu eta ondoren gordetegira eramatea du helburu.

**3. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Ordenantza honetan jasotako xedapenak Bermeoko herri-erabilerako herriko kale eta bide pribatu guztietan ezartzekoak dira, mota guztietako ibilgailuen geldialdi edo aparkatzeko guneak, plazak, kaleak edo jabari publikoko bideak, eta ondorengo hauen gainean izango du eragina. Hona:

1. Lehenengo lerroaldean aipatutako bideen erabiltzaileak, diren ibilgailuen gidariak, titularrak, jabeak, egoileak, edo oinezkoak, hainbat bakarka nola taldeka zirkulatuta.
2. Pertsona fisiko edo juridiko guztiak, lehenagoko lerroaldean sartu gabe egonda ere agindu horiek uki ditzaketenak.
3. Obra-kontratastak eta lanak egiten dituzten erakundeak edo partikularrak, bide publikoan libre zirkulatzeari erasaten diotela, murrizten edo ezeztatzen.
4. Edozein motatako ibilgailuak, trafikoan sartuta daudenak lehenengo lerroaldean aipatutako bideetan, aparkatuta daudela edo ibili dabilzala.
5. Solte edo taldeka dauden animalien jabeak edota arduradunak.

Agindu horiek ez dira aplikatuko publikoak ez diren eta beren jabeek edo mendekoek baino erabili ezin dituzten bide, lursail, garaje, kotxe-toki, lokal eta antzekoetan.



I. IDAZPURUA  
**TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAMENDUA**

I. KAPITULUA  
**UDAL ESKUMENA (6/2015 EDREN 7. ARTIKULUA)**

**4. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Trafikoko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko eta Bide Segurtasuneko Legeak hurrengo eskumenak ematen dizkie udalei:

1. Beren titulartasunpeko herri barruko bideetako trafikoa erregulatu, antolatu, kudeatu, zaindu eta kontrolatzea, beren agenteen bidez, eta bide horietan egindako arau-haustekak salatu eta zigortu ere, beste administrazioen bati eskumen hori berariaz eman ez bazaio.
2. Zirkulazioko Udal Ordenantzen bidez, herri barruko bideetako erabilpenak arautu behar dituzte, eta hiru puntu ezkondu ondo: berdin banatu behar dituzte erabiltzaile guztien artean aparkalekuak; ibilgailuen trafikoa nahitaez erraza izan behar da, betiere oinezkoak kaleetatik ibili ahal izateko moduan, eta aparkaldi mugaturako neurriak ere ezarri behar dituzte, aparkaldiak txandaka egingo direla bermatzeko. Gainera, bereziki erreparatuko diete ibilgailuak erabiltzen dituzten mugikortasun urriko ezinduen beharrei, horien gizarteratzea errazteko.
3. Herri barruko bideetako ibilgailuak ibilgetzeko eskumena dute; hain zuzen, hari eta gidaria nor den jakin arte ibilgetzeko eskumena, aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzeko gaitzen duen titulurik gabe daudenean, edo baimendutako denboratik gora daudenean.

Ibilgailuak hiri bideetatik kentzea eta ondoren gordetegira eramatea, zirkulazioa oztopoak jartzen dituztenean edo zirkulazioa zailtzen dutenean, edo arriskua eragiten dutenean, edo aparkaldi mugatuko guneeetan gaizki aparkatuta daudenean, artikulua honetan bertan ibilgetzerako aurreikusten diren baldintzekin. Kendu eta dagokion gordailura eraman ahalko dira bizikletak, utzita badaude, edo lotuta egonda, pertsonak edo ibilgailuak zirkulatzeko oztopatzen badituzte edo hiri-altzariak kaltetzen badituzte.

Baita herriz kanpoko bideetatik ibilgailuak kendu eta gordailuan uzteko eskumena ere, araudiz zehaztuko diren kasu eta baldintzetan.

4. Kirol-saioak egiteko baimena emateko eskumena, oso-osorik herri barruan egitekoak direnean, eta bertan bakarrik; beren eskumenetik kanpo daude zeharbi-deak.
5. Legez ezarritako probak egitea gidariengan intoxikazio gradua ezagutzeko, alkoholagatik edo drogengatik, zirkulazioaren segurtasuna kudeatzea, kontrolatzea eta zaintzea bere esku daukan bide publikoetan zehar dabilzanean.
6. Herri barruko bideak ixteko eskumena, beharrezkoa denean.
7. Ingurumen-arrazoiak direla eta, hiri-bideetan ibilgailu jakin batzuen zirkulazioa murriztea.

II. KAPITULUA  
**ABIABURU OROKORRAK**

**5. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Bermeoko Udalak trafikoa antolatzeko egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartu ahal izango ditu; horrela, bada, ibilgailu edo oinezko ororen edo batzuen zirkulazio baldintzak behin betiko edo aldi baterako aldatu, mugatu edo debekatu ahal izango ditu, aparkalekuak, zamalanak, eta salgaien edo pertsonen garraioa arautuz.

**6. artikulua (6/2015 EDren 12. artikulua)**

Bide publikoaren eremuren bat erreparatzeko, seinaleztatzeko, mantentzeko edo garbitzeko bada, mugatu beharko da seinalatuta, lanek erasango dieten erabiltzaileei horien berri jakinarazten zaiela 24 ordu gutxienez lehenagotik, presakako obrak badira izan ezik. Bestalde, ezingo dute eragotzi ez zirkulazioa, ez aparkatzea.

**7. artikulua (6/2015 EDren 12. artikulua)**

Udaleko Zerbitzu Teknikoek koordinazio estua mantenduko dute Udaltzaingoarekin bide publikoen gainean eragina daukaten eta erabiltzaileentzat gorabehera larriak eragin ditzaketen lan garrantzitsuetan egin beharreko jakinarazpenetarako eta hartu beharreko erabakietarako.

**8. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Udaltzaingoak zirkulazioaren antolaketa behin-behinean aldarazi dezake hiriko eremuren batean eta debekatu pertsonak edo ibilgailuak zenbait leku jakinetara iristea; hartarako, premiazkoak diren seinaleak jarri ahal ditu edo kendu, ezeztatu, beharrezko neurriak hartzen dituela zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bere hartan edukitze-ko bestean.

**9. artikulua (6/2015 EDren 54. artikulua)**

Udaltzainen oharrak edo trafikoaren jagoleenak edozein seinaleren edo arauen gainetik ere den egongo dira, aparkamenduari, oinezkoen edo ibilgailuen trafikoari eta pertsonen edo gauzen garraioari begira; gehiagoko barik kasu egin beharko zaie, beraz. Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**10. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Bermeoko Udalak zenbait bide lehentasunezkoetat edo trafiko dentsitate handikotzat jo ditzake, aplikagarria den araudi orokorra bide horien berezitasunetara egokitzeko. Bide horiek identifikatu eta haiei buruzko informazioa izateko seinaleztapen bertikala jarri beharko da. Etzandako seinaleztapena egiteko kolore gorriko pintura erabiliko da.

**11. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Bideetako erreiak erreserbatu ahalko dira ibilgailu mota jakin batzuen zirkulaziorako (autobus-erreia); erreserbatutako erreietatik derrigor joanaraztea ere gerta liteke.

## III. KAPITULUA

## ZIRKULAZIORAKO JOKABIDE ARAUAK

## I. ATALA

## IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA, TITULARRAREN ETA GIDARIAREN BETEBEHARRAK

**12. artikulua (6/2015 EDren 10. artikulua)**

*Ibilgailuen erabiltzaileak, gidariak eta titularrak*

1. Bide-erabiltzaileek ez dute zirkulazioa oztopatu behar modu txarrean, ez pertsonen arrisku, galera edo beharrik gabeko eragozpenik eragin, ezta ondasunei kalterik ere.
2. Ibilgailu baten gidariak betebeharrak hauek dituzte:
  - a) Ez norbere buruari ez beste inori ezelako kalterik ez sortzeko behar den arretaz eta kontuaz gidatu behar dute gidariak, norbere burua, bidaiariak eta gainontzeko bide-erabiltzaileak arriskuan ez jartzeko kontu eginez. Halaber, mugitzeko askatasuna izan beharko du, eta ikusteko edo adi egoteko beharrezkoa den eremua.
  - b) Gidariak bidaiariak jarrera egokian daudela zaindu beharko du, edo gidatzean oztopatzen duten gauzak edo animaliak ondo jarri.
  - c) Gidariak egiaztatu beharko du ibilgailuaren matrikularen plakek ez dutela irakurteza edo identifikatzea eragozten edo zailtzen duen oztoporik.



3. Ibilgailuen titularrek eta, hala denean, errentariak arretarik handienaz jardun behar dute ibilgailua erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak saihesteko, legez eta arau ezarritako baldintzetan mantenduz, kasuan kasuko azterketa eta ikuskapenak eginez, eta gidatzeko baimen edo lizentzia egokia inoiz izan ez dutenek gidatzea saihestuz.

### **13. artikulua (6/2015 EDren 11. artikulua)**

*Ibilgailuaren eta ohiko gidariaren betebeharrak*

1. Ibilgailu baten titularrak betebeharrak hauek ditu:
  - a) Administrazioari ibilgailuaren gidaria nor den esatea, arau-hausteren bat egiten denean. Ematen diren datuen artean gidatzeko baimenaren edo lizentziaren zenbakia eman behar da, Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan identifikatzeko aukera eman dezan. Gidaria Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan ez badago, titularrak Espainian gidatzea gaitzen duen administrazio baimenaren kopia izan behar du, eta Administrazioari emango dio hala eskatzen diotenean. Titularra gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko enpresa bat bada, administrazio baimenaren kopiaren ordez, errentamendu kontratuaren kopia erakutsi ahalko da.
  - b) Gidatzeko baimen edo lizentzia egokirik inoiz izan ez duenak ibilgailua gidatzea saihestea.
2. Titularrak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko Ibilgailuen Erregistroan ibilgailuaren ohiko gidaria jakinarazi ahal izango du Barne Ministerioaren Aginduz zehaztutako baldintzetan ezarritakoaren arabera (6/2015 ED).

Ohiko gidaria: Ordenantza honetan aurreikusitako ondorio berezietarako, Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan izena emanda egon eta gidatzeko baimen edo lizentzia egokia izanik, ibilgailu baten titularrak izendatutako pertsona da, haren baimenarekin, normalean edo sarriagotan ibilgailua gidatzen duena delako. Hala denean titularra aurreko betebeharretatik salbuetsita geratuko da eta ohiko gidariari besterenduko zaizkio.

3. 1. atalean ezarritako betebeharrak eta aurreko atalean azaldutako jakinarazpena ibilgailuaren epe luzeko errentariari egokituko zaizkio Ibilgailuen Erregistroan errentaria nor den jasota egonez gero.

4. Epe luzeko errentan hartutako ibilgailuen titularrek Ibilgailuen Erregistroari errentaria nor den jakinarazi behar du, zehazten diren baldintzetan.

### **14. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua)**

*Edari alkoholodunak eta drogak*

- a) Ezin da ibili Ordenantza honetan jasotzen diren bideetatik legez ezartzen direnak baino handiagoak diren alkohol-tasekin joaten den edozein ibilgailutako gidaria. Ez eta organismoan drogak dituen edozein ibilgailutako gidaria ere. Horietan ez dira barne hartzen medikuak agindutako edo helburu terapeutikoa duten substantziak, betiere ibilgailua erabiltzeko moduan badago, arduraz, kontuz eta arreta galdu gabe gidatu beharreko baldintzaren arabera.
- b) Ibilgailu baten gidariak bere organismoan alkohola edo drogak detektatzeko probak egin behar ditu. Proba horiek, beren eginkizunen barruan duten trafikoa zaintzea duten agintaritzak agenteek egingo dituzte. Halaber, bideko gainerako erabiltzaileek trafiko istripu bat izaten badute edo Ordenantza honen ezarritakoaren arabera, arau-hauste bat egiten badute, proba horiek ere egin behar dituzte.
- c) Alkohola detektatzeko proben barruan egongo da botatutako airea legezko gailuen bidez aztertzea, organismoan drogak dauden ala ez detektatzeko. Halaber, listu-proba ere egingo da, legezko gailu baten bidez, eta gero listu-lagin bat aztertuko da.

Hala ere, proba horiek ez egiteko justifikatutako arrazoiak baleude, subjektuaren azterketa medikoa edo eramatan duten osasun-zentroko medikuek egokitutako josten dituzten azterketa klinikoak egiteko agin daiteke.



- d) Alkohola edo drogak detektatzeko probak zer prozedura eta baldintzarekin egingo diren arauz ezarriko da.
- e) Alderatzeko helburuarekin, interesdunak eskatuta, probak errepikatu ahalko dira alkohola edo drogak detektatzeko. Proba horietan, odol-analisia egingo da lehen-tasunez, behar bezala justifikatutako salbuespeneko kasuak izan ezik. Kontras-te-proban emaitza positiboa ateratzen bada, interesdunak ordainduko du.

Sanitarioek, dena den, proba horren emaitza jakinarazi behar diote Bermeoko Udaleko alkateari. Ibilgailu motordunen trafikoaren eta zirkulazioaren arloan zehatzeko eskumeneko organoa da.

**15. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 20. artikulua)**

*Odoleko eta jaurtitako arnasako alkohol-mailak*

Ibilgailuen eta bizikleten gidariak ezin dira ibili Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legerian aipatutako bideetatik, baldin eta odolean litroko 0,5 gramo baino alkohol gehiago badaukate, edo jaurtitako arnasan litroko 0,25 miligramo baino alkohol gehiago badaukate.

Salgaiak garraiatzeko izan, eta 3.500 kilo baino gehiagoko baimendutako gehienezko pisua daukaten ibilgailuen kasuan; bidaiariak garraiatzeko izan, eta bederatzi plaza baino gehiago daukate ibilgailuenean, edo zerbitzu publikokoak direnean; eskola-umeak eta adin txikikoak garraiatzeko direnean; salgai arriskutsuak garraiatzeko direnean, edo larrialdi-zerbitzuko ibilgailuak, edo garraio berezietakoak direnean, gidariak ezin izango dituzte gidatu, odolean litroko 0,3 gramo baino alkohol gehiago badaukate, edo jaurtitako arnasan litroko 0,15 miligramo baino alkohol gehiago badaukate

Edozein ibilgailuren gidariak ezingo dute gaintitu odolean litroko 0,3 gramoko alkohol-tasa, edo jaurtitako arnasan litroko 0,15 miligramoko alkohol-tasa gidatzeko gaitzen dituzten baimen edo lizentzia lortu eta bi urteko epean

Horretarako, lizentzia ibilgailu hori gidatzeko balio duenean baino ez da kontutan hartuko gidatzeko lizentziaren antzinatasuna.

**16. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 21. artikulua)**

*Alkoholemia neurtzea. Behartuta dauden pertsonak*

Ibilgailuetako, bizikletetako eta hiri-mugikortasuneko ibilgailuen gidari guztiak daude behartuta alkoholez toxikaturik aurkitzen ote diren jakiteko ezar daitezten probak egitera. Era berean, zirkulazioko istripuren batean tarteko diren gainontzeko bide-erabiltzaileak ere horretara beharturik daude.

Trafikoa zaintzeko ardura duten agintaritzako agenteek honako pertsona hauek behartu ahal izango dituzte alkoholemia-neurketak egitera:

- a) Zirkulazioko istripuren batean zuzenean sartuta dagoen edozein bide-erabiltzaile edo gidari, istripuaren erantzukizuna duela ematen badu.
- b) Begien bistako zantzuak agertu, adierazpenak egin edo ekintzak burutuz, edari alkoholdunen eraginpean gidatzen dihardutela susmatzeko moduan edozein ibilgailu gidatzen ari diren pertsonak.
- c) Araudi honetako arauen bat hausteagatik salatutako gidariak.
- d) Agintaritzak alkoholemia aurrezaintzeko agindutako kontrol-programen barruan, alkoholemia-probak egin beharko dituzte ibilgailuren bat gidatzen ari diren gidariak, agintaritzak berak edo agintaritzaren agenteek hala egitea eskatzen badiete.

**17. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 22. artikulua)**

*Jaurtitako arnasan alkohola antzemateko probak*

1. Egon daitekeen alkohol-intoxikazioa detektatzeko probak trafikoaren zaintzaz arduratzen diren poliziaek egingo dute, eta normalean, hauek izango dira: jaurtitako airea



etilometroen bidez aztertzea. Horiek, ofizialki baimenduta daudenek, interesdunek duten alkohol-maila kuantitatiboki neurtuko dute.

Interesatuak eskatuta edo agintaritza judizialak aginduta, beste proba batzuk ere egin ahal izango dira aipatutakoekin konparatzeko, hala nola, odol-analisiak, gernu-analisiak edo antzeko beste batzuk (testu artikulatuaren 12,2. artikuluko 2. paragrafoa, in fine).

2. Alkoholemia-neurketa egitera behartuta daudenen kasuan, zauri, ondoez edo gaixotasun larriak jasan eta gero, proba horiek egin ezin badituzte, eta osasun-etxeren batera jasotzen badituzte, bertako fakultatiboek erabakiko dute zelako probak egin behar zaizkien.

### **18. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 23. artikulua)**

#### *Probak nola egin*

1. Egindako probaren emaitzaren arabera, odol litroko alkohol-maila 0,5 gramo baino handiagoa bada, edo botatako aire litroko 0,25 miligramo alkohol baino gehiago badu, edo 15. artikuluan gidari jakin batzuentzat ezarritakoa baino handiagoa, edo muga horietara heldu gabe, edari alkoholdunen eraginpean dagoena sintoma nabariak badi-tu aztertutako pertsonak, poliziak botatako airean alkohola detektatzeko bigarren proba egingo dio, lehen proba egiteko balio izan zuen antzeko prozedura baten bidez. Dena den, aldeztu aurretik horren berri eman beharko dio.

2. Azterketa egin behar duenari, eskubide bat dagokiola iragarriko dio, halaber, bidezainak; hau da, lehenengo eta bigarren neurketen artean gutxienez 10 minutu iragan behar direla, eta denbora hori interesatuak berak kontrola dezakeela edo, bestela, berarekin doan norbaitek edo bertan dagoen lekukoren batek.

3. Horiez gain, bidezainak beste eskubide honen berri ere eman behar dio interesatuari: interesatuak berak, berarekin doan norbaitek edo, halakorik izanez gero, bere abokatuak, egoki irizitako arrazoibideak edo oharpenak egin ditzakeela, eta eginbidez jasoko direla. Era berean, lortutako emaitzak konparatzeko eskubidea ere baduela esango dio, osasun-etxe batera eraman eta gero, bertako fakultatiboek egoki irizitako odol-analisiak, gernu-analisiak edo antzeko beste analisi batzuen bidez egiteko.

4. Interesatuak analisi horiek egitea erabakitzen badu, jazoeren lekutik hurbilen dagoen osasun-etxera interesatua eramateko neurriak hartuko ditu agintaritzaren agenteak. Bertako fakultatiboek, interesatuak eskatutako probak egokiak direla uste badute, 14. e) artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Interesatuak aldeztu aurretik jarriko du analisi horiek ordaintzeko dirua. Eraitza positiboa bada, diru horrekin ordainduko da; negatiboa bada, berriz, udaleko edo autonomia erkidegoko agintari eskudunek ordainduko dute, eta interesatuari itzuli egingo zaio jarritako dirua.

### **19. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 24. artikulua)**

#### *Agintaritzaren agenteak bete beharreko eginbideak*

Bidezainak egindako bigarren probaren emaitza edo interesatuak eskatuta egindako analisisen emaitza positiboa bada, edo ibilgailu motorduna gidatzen duenak edari alkoholdunen eraginpean dagoela argi eta garbi erakusten badu, edo, itxurarik itxura, delituzko portaeraren bat izan duela agertzen bada, Auzipetze Kriminaleko Legean jasotakoa osorik betetzeaz gain, honako hauek egin behar ditu agintaritzaren agenteak:

- a) Salaketa-orrian, edo egindako eginbideen argiketean, zehatz azaldu behar du alkohola antzemateko egindako proban edo probetan erabilitako prozedura. Horrez gain, alkohola antzemateko probetan erabilitako aparailua edo aparailuak identifikatzeko zehaztasun guztiak jaso behar ditu, baita ezaugarri orokorrak zehaztu ere.
- b) Interesatuari egindako oharrak ere idatziz jaso behar ditu. Batez ere, jaurtitako arnasa aztertuta lortutako alkoholemia-neurketaren emaitzak beste analisi egoki batzuen bidez konparatzeko eskubidea duela jakinarazi diola; eta, osasun-etxe



batera eraman eta gero, bertan egindako proba edo analisiak egiaztatu behar ditu eginbideetan.

- c) Bai alkoholemia neurtzeko azterketatik pasatu dena, bai horretarako probak egiteari uko egin diona, kasu biotan, dagokien epaitegira eramango ditu agintaritzaren agenteak, bidezko diren ondorioetarako, Auzipetze Kriminaleko Legean xedatutakoarekin bat etorritik, gertatutako jazoerek delitu-zantzurik badute.

**20. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 25. artikulua)***Ibilgailua ibilgetzea*

1. Alkoholemia-neurketen emaitza eta, analisirik eginez gero, analisisena ere positiboa bada, lehen esandakoaz gain, berehala utz dezake ibilgetuta ibilgailua agenteak, zigilua jarritz edo zirkulatzea galarazten dion bestelako modu eraginkorren bat erabiliz, salbu eta ibilgailua gidatzeko behar bezala gaitutako beste inor badago. Gainera, behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu segurtasuna lortzeko: bai zirkulazioaren segurtasuna, bai garraiatutako pertsona guztiena —batik bat, ume, zahar, gaixo zein ezindua badi— ibilgailuarena eta daraman zamarena.

2. Alkohola detektatzeko probak egiteari uko egiten badio, ibilgailua immobilizatu ahalko da.

3. Agintaritzak judizialak ibilgailua gordelekuan utzi edo bahitzea agintzen badu, horrek xedatutakoa bete behar da. Bestelako kasuetan, ondorioz gabe utziko da ibilgailua ibilgetzeko agindua, hori agintzeko zeuden arrazoiak desagertu bezain laster, edo gidatzeko gaitua den norbait gidaria ordezkatzeko moduan egonez gero, beti ere norbait horrek agintaritzaren agenteei nahikoa segurtasun eskaintzen badie, eta hark gidatzea eskatu badu interesatuak.

4. Ibilgailua ibilgetu, garraiatu eta gordelekuan uzteak eragin ditzakeen gastuak gidariaren edo legez ibilgailuaren erantzukizuna duenaren pentzutan izango dira.

**21. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 26. artikulua)***Osasun-langileen betebeharrak*

1. Osasun-langileek laginak lortu eta dagokion laborategira bidali beharko dituzte, eta egiten dituzten proben emaitza jakinarazi beharko diete agintaritzak judizialari eta udal agintariei.

Aipatutako agintariei edo organoei osasun-langileek jakinaraziko dizkieten zehaztasunen artean honako hauek agertu behar dira: alkoholemia neurtzeko erabilitako sistema, zein ordu zehaztuta hartu zen lagina, lagina kontserbatzeko erabilitako metodoa eta, jakina, aztertutako pertsonak odolean agertu duen alkohol-maila.

2. Atal honen arauetan egindako arau-hausteak, alegia edari alkoholduak edanda gidatzea, edo alkohola antzemateko probak egiteari ukatzea, arau-hauste oso larritzat hartuko dira.

**22. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 27. artikulua)***Sorgogarririk, psikotropikoak, estimulatzaileak edo antzeko beste gai batzuk*

1. Ordenantza honek arautzen dituen bideetan, ibilgailuen, bizikleten eta hirian mugitzeko ibilgailuen gidariek ezin izango dute zirkulatu baldin eta gai hauetako bat irentsi edo sartu badute organismoan: psikotropikoak, estimulatzaileak edo antzeko beste gai batzuk, horien artean, arriskurik gabe zirkulatzeko egoera fisiko edo mental egokia aldatzen duten botikak edo bestelako gaiak.

2. Arau hauek ez betetzea arau-hauste oso larritzat hartuko da.



**23. artikulua (6/2015 EDren 14. artikulua) (1428/2003 EDren 28. artikulua)**

*Sorgogarriak, psikotropikoak, estimulazailak edo antzeko beste gai batzuk hartu diren aztertze probak*

1. Sorgogarriak, psikotropikoak, estimulazailak edo antzeko beste gai batzuk hartu diren aztertze probak, eta proba horiek egitera behartuta daudenak, guztiok ere hurrengo erroaldeetan xedatutakoari lotu behar zaizkio:

- a) Normalean bi eratakoak izango dira probak: batetik, probak egitera behartuta dagoen pertsonaren araketa egingo du medikuak, eta bestetik, analisi klinikoak egingo zaizkio. Analisiak, ordea, auzitegiko medikuak edo eskarmentu handiko beste titular batek egokien irizitakoak izango dira, edo bestela, pertsona hori eraman den osasun-zentroko edo institutu medikuko fakultatiboek egokien irizitakoak.

Interesatuak eskatuta, edo agintaritzaren aginduta, halako proba horiekin konparatzeko, beste batzuk egin ahal izango dira; hala, odol-analisiak, gerru-analisiak edo antzeko beste batzuk egin ahal izango dira.

- b) Horren antzeko edo alkoholemiaren azterketari buruzko 16. artikuluan aipatutako batean jasotzen den edozein egoeratan dagoen pertsonak aurreko paragrafoan adierazitako probak egin beharko ditu. Proba horiek ez baditu egin nahi, polizia ibilgailua berehala immobilizatu ahalko du, 20. artikuluan ezarritako moduan.
- c) Zirkulazioa zaintzen duen agintaritzaren agenteak, aurreko artikuluan aipatutako pertsonak gorpuztean lehen esandako gairen bat daukatela susmatzeko begi bistako zantzuak ikusten baditu, edo portaeren arabera argi eta garbi halakorik nabaritzen badu, Auzipetze Kriminalako Legean jasotakoa eta, behar denean, agintaritzaren agindutakoa bete behar du; ondorioz, ahal duen heinean, alkoholemia-neurtzeko probei buruz araudi honetan xedatutakoa bete behar du.
- d) Eskumenak dituzten agintariek zehaztuko dute zelako programak egin behar diren aurrezaintza-kontrolak gauzatzeko, hain zuzen, gidariek sorgogarririk, psikotropiko, estimulazailak edo antzeko beste gairik hartu ote duten jakiteko.

2. Sorgogarriak, psikotropikoak, estimulazailak edo antzeko beste gai batzuk hartuta gidatzeagatik edo gai horiek detektatzeko nahitaezko probei uko egiteagatik manu hau hauten bada, arau-haustea oso larritzat joko da, testu artikulatuaren 77.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera (6/2015 ED).

**24. artikulua (15. artikulua, 6/2015 ED) (29. artikulua, 1428/2003 ED)**

Oro har, bihurtzean eta ikuspen urriko sestra-aldaketetan berezi-bereziki, eskuinadetik dabilzala zirkulatuko dira ibilgailuak, galtzadaren ertzean ahal den hurrena, ordenantza hau doakien bide guztietan, alboko tartea gordeta bata bestearekin segurtasunez gurutzatzeko beste.

**25. artikulua (21. artikulua, 6/2015 ED) (45. artikulua, 1428/2003 ED)**

Motordun ibilgailuen hiri barruko zirkulaziorako baimendutako gehieneko eta gutxieneko abiadurak seinaleztatu egingo dira kasu bakoitzean. Seinalerik egon ezean, ezingo da gainditu oro har hirigunean ezarritako 30 km/h-ko gehieneko abiadura. Hori ez bada betetzen, 184. artikuluan III. eranskineko laukiaren arabera zehatuko da.

**26. artikulua (21. artikulua, 6/2015 ED) (46. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ordenantza honek eragindako bide guztietan, ibilgailuek abiadura moteldu beharko dute inguruabarrek hala eskatzen dutenean, bereziki oinezko asko dagoen bideetan, eta ikastetxeak dauden tokietan. Hor, pertsona bat igarotzen bada abiadura moteldu beharko dute, eta beharrezkoa izango balitz, gelditu, kontu handiz ibiliz, kasu hauetan bereziki:

- a) Gidaria dabilen bidegunean oinezkoak daudenean, edo tupustean bidean sar daitezkeela sumatzen denean; bereziki, haurrak, zaharrak, itsuak edota benetan ezinduak diren pertsonen kasuan.



- b) Martxan doazen bizikletetara hurbiltzerakoan eta bizikletentzako berariazko bideen gurutzeetan eta inguruetan; semaforoz edo bidezainek zuzendu gabeko oinezkoentzako pasaguneetara hurbiltzerakoan eta merkatuetara, ikastetxeetara edo haurrak egon daitezkeen lekuetara hurbiltzerakoan.
- c) Gidaria dabilen bidegunean animaliak daudenean, edo tupustean bidean sar daitezkeela sumatzen denean.
- d) Gidaria dabilen bidegunera zuzenean sartzeko moduko irteerak dituzten etxeak dauden tokietan.
- e) Geldituta dagoen autobusen batera hurbiltzerakoan, bereziki eskola-umeak garraiatzeko autobusa bada.
- f) Herritik kanpo, galtzadan ibilgetuta dagoen ibilgailuren batera edo galtzadatik edo bazterbidetik doazen bizikletetara hurbiltzerakoan.
- g) Zoladura irristakorretan zirkulatzean edo beste bide-erabiltzaileei zipriztinak, harxtinxarrak edo beste edozer gai jaurtitzeko moduan dauden bideetan.
- h) Trenbide-pasaguneetara, lehentasunik gabeko biribilguneetara eta elkarguneetara, ikuspen gutxiko tokietara edo estuguneetara hurbiltzerakoan.  
Elkarguneak behar bezala seinaleztatuta badaude, eta ia ikuspenik ere ez bada go bidean, ibilgailuen abiadura ezin da izan orduko 50 km baino gehiagokoa.
- i) Beste ibilgailu batekin gurutzatzerakoan, bidearen edo ibilgailuen egoerak, eguraldiak edo ingurugiroak maniobra hori segurtasunez egiten uzten ez badu.
- j) Itsualdia gertatuz gero, araudi honen 102.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- k) Behe-laino itxia, hauts-lainoa edo kea dagoenean, edo euri-jasak edo elurra direnean.

Hemen ezartzen diren arauak urratzen badira, larritzat edo oso larritzat hartuko dira, gehiegizko abiadurarengatik dagokionaren arabera.

**27. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (44. artikulua, 6/2015 ED) (7. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ibilgailuek ezin zaratarik egin dezakete soinu-seinaleak behar ez bezala erabilia, bat-batean azeleratuta edo beren egiturak edo mekanikak aldatuak edo narriatuak dazkatela.

Obretatik etorrira gupil eta/edo kargatetik basa edo hauts ugari botatzen duten ibilgailuek debekatuta izango dute zirkulatzea.

**28. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (7. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ibilgailuak ezin zirkulatuko dira keen ihes-hodia aldatua edo narriatua, homologatutako sonometroaz ke-tutuaren zulotik 10 metrora eta aurrez aurre egindako neurria 80 dB-etik gorakoa denetan.

**29. artikulua (25. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 1428/2003 ED)**

Motozikletak eta ziklomotorrak ezingo dira inola ere ibili espaloietatik, nasetatik edo pasealekueetatik, Ordenantza honetan oinezkoen eremuetarako ezarritakoa gorabehera, lanean dauden Udaltzaingoarenak izan ezik, horretarako baimena dutelako.

**30. artikulua (25. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bizikleten eta ziklomotorren gidariek, ibilgailu enparauen gidariek bezala, indarrean dauden zirkulazioko arauak eta seinaleak gorde behar dituzte, oso-osoan betetzen dituztela eta kasu egiten agintaritzaren egileen oharrei.

**31. artikulua (35. artikulua, 6/2015 ED) (54. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ziklo edo ziklomotor bat, hirian mugitzeko ibilgailuak edo horiek guztiak aurreratu nahi dituen ibilgailu baten gidariak, galtzadaren aldameneko edo kontrako erreieren zati bat edo osorik hartuz egin beharko du, eta gutxienez, 1,5 metroko segurtasun-zabalera



utzi beharko du. Debekatuta dago aurreratzea kontrako noranzkoan ibiltzen diren txirrin-dulariak arriskuan jarri edo eragozten baditu, txirrin-dulariak bazterbidetik badoaz ere.

Artikulu hau urratzen bada, arau-hauste larritzat hartuko da, eta 4 puntu kenduko dira.

**32. artikulua (17. artikulua, 6/2015 ED) (54. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ziklistek edo motoristek bidean sailean zirkulatzen direnetan, batak bestearen ondotik erreskadan beharko dute eta segurtasuneko tartea edukiko elkarren artean, lehian jardun gabe zeinek arinago egin edo trebeagoa izan.

Edonola ere debekatu egiten zaie parez pare zirkulatzea, bizikletei izan ezik. Horiek biko ilaratan zirkulatu ahal izango dute, bidearen eskuineko bazterretik ahalik eta hurbilen, eta banako ilaran jarriko dira ikuspenik gabeko zatietan eta trafiko-pilaketak sortzen dituztenean.

**33. artikulua (17. artikulua 6/2015 ED) (12. artikulua 1428/2003 ED)**

1. Pertsona bakar batentzat egindako bizikletetan, gidaria adinez nagusia bada, zazpi urtera arteko haur bat ere eraman ahal izango da, betiere, homologatutako jarleku osagarri batean.

2. Motor-bizikleta eta motorretan, gidariaz gain, eta, sidekarrik badu, sidekarrean doanaz gain, 12 urtetik gorako beste bidaiari bat ere joan ahal izango da, zirkulatzeko baimenean edo lizentzian hala jasota badago, babes-kaskoa badarama eta baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Hankalatraban zirkulatzea, oinak aldamenetako hankalekuetan ipinita.
- b) Dagokion eserlekuan joatea, gidariaren atzean.

Bidaiaria inola ere ezin izango da jarri motorreko gidariaren eta esku-lekuaren artean.

3. Salbuespen gisa, zazpi urtetik gorakoek ere motorretan edo motor-bizikletetan zirkulatu ahal izango dute baina, betiere, gidaria aita, ama edo tutorea edo horiek baimendutako adinez nagusi bat bada, kasko homologatua badaramate eta aurreko paragrafoko aginduak betetzen badituzte.

**34. artikulua (13. artikulua, 6/2015 ED) (18. artikulua, 1428/2003 ED)**

1. Ibilgailuetako gidariek, gidatzen ari direla, ezinbestean zaindu behar dute beren mugimenduen askatasuna, baita beharrezko ikus-eremua eta gidatzeko etengabeko arreta ere. Izan ere, beren segurtasuna, ibilgailuan doazen beste bidaiariena eta gainontzeko bide-erabiltzaileena bermatzeko izango da hori. Horretarako, arreta berezia jarri behar du gidariak, bai bera eta bai beste bidaiariak egoki eserita joan daitezen, baita garraiatzen dituen gauzak edo animaliak ondo kokatzeko ere, horietako ezerk ere gidariari enbarazurik sor ez diezaion.

2. Debekatuta dago gidatzen ari den bitartean telefono mugikorreko edo komunikaziorako bestelako edozein tresna edo sistemak erabiltzea, komunikazioa eskuak erabili gabe, entzungailuak edo antzeko instrumentuak erabili gabe gauzatzen denean izan ezik.

3. Debekatu egiten da, debekatu, kapitulu honetan zehaztutako moduan barik, beste era batera bai ibilgailuak zamatzea, eta bai pertsonak, salgaiak edo bestelako gauzak garraiatzea ere.

**35. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (122. artikulua, 1428/2003 ED)**

Eskuko gurdiak eta gurpildun aulkiak ez dira hartuko hirian mugitzeko ibilgailutzat, eta espaloietatik edo oinezkoen guneeetatik zirkulatuko dute, beren tamainak oinezkoiei eragozpenik sortzen ez badie. Bestela ezinda, galtzadaren eskuinaldeko ertzaren ondo-ondotik ahal den beste ibiliko dira eta mugitutako bideko seinaleei men egin beharko diete, gainteko ibilgailuetatik ikus ahal daitezkeen modukoak izanda.

**36. artikulua (6/2015 EDren 18. artikulua)**

1. Ziklistek inongo bidetik ibiltzekotan, berentzat berariaz bereziak dauzkaten erreiak, bidegorri deritzenak, usatuko dituzte gehienbat; udal zerbitzu teknikoek berek daukate horiek markatzea eta seinaleztatzea.

2. Bizikleten erabiltzaileek elementu eta jantzi islatzaileak erabili beharko dituzte, Legean ezarritakoaren arabera (6/2015 EDren 43. artikulua).

Hau ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**II. ATALA****ZIKLOMOTORRAK****37. artikulua (6/2015 EDren 59. artikulua) (2822/1998 EDren 4. artikulua, II. Eranskina)**

Ibilgailu hauek hartzen dira ziklomotortzat:

- a) Bi gurpileko ibilgailua, 50 cm<sup>3</sup>-ko edo gutxiagoko motorra duena barne-errekuntzakoa bada, eta, fabrikazioz, gehienez, orduko 50 kilometroko abiadura hartzen duena.
- b) Hiru gurpileko ibilgailua, 50 cm<sup>3</sup>-ko edo gutxiagoko motorra duena barne-errekuntzakoa bada, eta, fabrikazioz, gehienez, 50 kilometroko abiadura hartzen duena orduko.
- c) Lau gurpileko ibilgailuak, hutsean 350 kilogramotik beherako masa dutenak (ibilgailu elektrikoa bada, baterien masa kontuan hartu gabe), fabrikazioz, gehienez, orduko 45 kilometroko abiadura hartzen dutenak eta 50 cm<sup>3</sup>-ko edo gutxiagoko zilindrada dutenak eztanda-motorra badute, edo 4 kW-ko edo gutxiagoko gehienezko potentzia garbia dutenak, bestelako motorra badute.

**38. artikulua (6/2015 EDren 12. artikulua) (1428/2003 EDren 7. artikulua)**

Ezingo da ibilgailurik ibili gasak hodi erresonadore batetik botatzen, eta gainerako gidariaren ikuspena zail dezaketen keak igortzen baditu. Udaltzaingoak, legez ezarritako mugen gaineratik dauden zaratak edo gasak sortzen dituen ibilgailu edo ziklomotor bat detektatzen badu, edo bere abiadura, potentzia edo bestelakoarengatik jatorrizko ezaugarri teknikoak manipulatu dituen zantzuak badaude, errekerimendu-txosten bat emango zaio gidariari, egoera hori adieraziz, 10 egun naturaleko epean Ikuskaritza Teknikora jo dezan, ibilgailua aztertzeko. Adierazitako epearen barruan ez bada joaten, zehapen bat jasoko du.

Berriro ez bada joaten, zehapen-espediten proposamen bat hasiko da, ofizioz, eta ibilgailua berehala immobilizatzea aginduko da.

Ibilgailuan egindako ikuskapenetik ondorioztatzen bada zarata eta gasen gaineko arautegia urratzen duela, 10 eguneko epea emango zaio berriro bertara dadin, akatsak zuzenduta.

Ez bada bertaraten, zehapen-espediten bat ofizioz hasiko da, ikusitako akats teknikoengatik, eta ibilgailua berehala immobilizatzea aginduko da.

Ibilgailuaren hasierako ezaugarri teknikoak manipulatu direla antzematen bada, Trafikoko Lurralde Bulegoari jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako.

**39. artikulua (6/2015 EDren 68. artikulua) (2822/1998 EDren 28. artikulua)**

Identifikatze aldera, ibilgailu guztiek, motozikletek eta ziklomotorrek izan ezik, bi matrikula-plaka, lauak eta laukizuzenak, eraman beharko dituzte. Bat, aurrealdean, eta bestea, atzealdean, jarriko dira. Motozikletek eta ziklomotorrek plaka bat bakarrik eramango dute atzealdean, bertikalean edo ia bertikalean jarrita, ibilgailuaren luzetarako plano er-tainean, eta erdian, atzeko lohi-babesaren gainetik, sidekarra ez daramaten motozikle-ten kasuan, eta bi gurpilen artean eta ahalik eta garaian, sidekarra badute.



Bermeoko udalerriko bideetatik matrikularik gabe ibiltzen diren ziklomotor guztiak arau-hauste larriarengatik salatuko dute. Halaber, akatsa zuzendu arte immobilizatuko dute.

**40. artikulua (6/2015 EDren 43. artikulua) (2822/1998 EDren 21. artikulua)**

1. Ziklomotorrek, udalerritik ibili ahal izateko, argiak egoera onean eraman beharko dituzte: argi zuriak (aurrean) eta gorriak (atzean). Potentzia handia izan behar dute, eta ongi doituta eta garbi. Ziklomotorrek argiak pizturik zirkulatu beharko dute eguneko 24 orduetan.

2. Ziklomotorrek honako hauek eraman beharko dituzte:

2.1. Bi gurpileko ziklomotorrek:

- Argi laburra.
- Atzeko posizio-argiak.
- Luz de frenado.
- Triangelu-formakoa ez den katadioptrikoa atzean.
- Katadioptrikoak pedaletan, pedalik badute eta horiek bilkorak ez badira.
- Triangelu-formakoak ez diren katadioptrikoak alboetan.

2.2. Hiru gurpileko motor-bizikletek eta kuartriziklo arinek:

- Argi laburra.
- Aurreko posizio-argiak.
- Atzeko posizio-argiak.
- Luz de frenado.
- Triangelu-formakoa ez den katadioptriko bat 1.000 milimetroko zabalera arteko ibilgailuetan eta bi katadioptriko zabalera hori gainditzen dutenetan.
- Katadioptrikoak pedaletan, pedalik badute eta horiek bilkorak ez badira.
- Norabidea adierazteko argiak karrozeria itxia duten ibilgailuetan.

2.3. Bi gurpileko ziklomotorrek:

- Argi luzea.
- Norabidea adierazteko argiak.
- Aurreko posizio-argiak.
- Triangelu-formakoak ez diren katadioptrikoak aurrean.
- Atzeko matrikula-plakako argia.

2.4. Hiru gurpileko motor-bizikletek eta kuartriziklo arinek:

- Argi luzea.
- Norabidea adierazteko argiak karrozeria itxia ez duten ibilgailuetan.
- Triangelu-formakoak ez diren katadioptrikoak alboetan.
- Atzeko matrikula-plakako argia.

3. Motor-bizikletek ezin izango dute eraman inolako atoirik edo erdi-atoirik.

**41. artikulua (6/2015 EDren 14.5. artikulua)**

Motozikleta edo ziklomotorren kasuan debekatuta dago:

- a) Ziklo batean pertsona bat baino gehiago joatea, bat batentzat bakarrik egin da.
- b) 7 urte arteko adingabe bat ibilgailuan garraiatzea homologaziorik ez duen eserleku osagarri batean.
- c) Gidari adingabe batek 7 urte arteko adingabe bat garraiatzea.
- d) Zirkulatzeke baimenean azaltzen diren bidaiarien kopuruak baino gehiagok zirkulatzea.



- e) 12 urtetik beherako adingabe bat bidaiari bezala eramatea motorrean edo ziklomotorrean.
  - f) 12 urte baino gehiagoko bidaiaria eramatea motor edo ziklomotor batean, ez hankalatraba ezta alboetan oinak eutsita ere.
  - g) Bidaiaria inola ere ezin izango da jarri motorraren edo ziklomotorraren gidariaren eta eskulekuaren artean.
  - h) Baimendutako adin nagusiko gidariak 7 urte eta 12 urte arteko bidaiari bat eramatea motorrean edo ziklomotorrean homologatutako kaskorik gabe.
  - i) Baimendutako adin nagusiko gidariak 7 urte eta 12 urte arteko bidaiaria eramatea motor edo ziklomotor batean, ez hankalatraba ezta alboetan oinak eutsita ere.
  - j) Baimendutako adin nagusiko gidariak 7 urte eta 12 urte arteko bidaiari bat eramatea motorrean edo ziklomotorrean gidariaren atzeko eserleku egokia erabili gabe.
  - k) Hutsik daudenean duten masa %50 baino gehiagoan gainditzten duen atoaia edo erdi-atoia daramaten motorrak, hiru gurpileko ibilgailuak, ziklomotorrak, zikloak edo bizikletak.
  - l) Gauez edo ikuspena murrizten duten baldintzetan atoaia edo erdi-atoia daramaten motorrak, hiru gurpileko ibilgailuak, ziklomotorrak, zikloak edo bizikletak.
  - m) Baimendutakoa baino abiadura handiagoan (ibilgailu horietarako abiadura generikoa ken %10) atoaia edo erdi-atoia daramaten motorrak, hiru gurpileko ibilgailuak, ziklomotorrak, zikloak edo bizikletak (ikus abiaduraren baremoa).
  - n) Motorrek, hiru gurpileko ibilgailuek, ziklomotorrek, zikloek edo bizikletek atoian eraman dezaketen ibilgailuan pertsonak garraiatzea.
- E), h), i), j) eta m) epigrafeetan aipatutako arau-hausteak larritzat joko dira.

#### **42. artikulua (6/2015 EDren 13. artikulua) (1428/2003 EDren 118. artikulua)**

1. Motorretako, sidekardun motorretako, hiru gurpileko ibilgailuetako eta kuadrizikloetako, ziklomotorretako eta «quad» motako ibilgailu berezien gidariak eta bidaiariak behar bezala jantzita eraman behar dituzte indarrean dagoen legediaren arabera homologatu edo egiaztatutako babes-kaskoak, herri barruko nahiz herriz kanpoko bideetatik zirkulatzen ari direnean.

Motorretako, hiru gurpileko ibilgailuetako eta kuadrizikloetako eta motor-bizikletetako gidariak eta bidaiariak ez dute zertan babes-kaskoa erabili behar izango baldin eta beren ibilgailuek autobabeserako egiturak eta segurtasun-uhalak badituzte eta azterketa teknikoko txartelean edo motor-bizikletaren ezaugarrien egiaztatutako horrela jasota badago. Ordea, behartuta daude segurtasun-uhala erabiltzera, bai herri barruko, bai herriz kanpoko bideetan.

Bizikleta-gidariak eta, baleude, bidaiariak indarrean dagoen legeriaren arabera homologatutako edo egiaztatutako babes-kaskoak erabili behar dituzte herriz kanpoko bideetan, salbu eta goranzko malda luzeetan, edo trafiko legedian zehaztutako moduan egiaztatutako arrazoi medikoengatik, edo bero oso handia egiten duenean.

Lehiaketan diharduten bizikletetako gidariak eta txirrindulari profesionalek, bai entrenamenduetan, bai lehiaketetan, berariazko arauen arabera jardungo dute.

2. Ibilgailuetan burukoak edo bestelako babes-elementuak instalatu ahal izateko, ibilgailuei buruzko arauetan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte elementu horiek.

3. Automobiletako, autobusetako, salgaiak garraiatzeko automobiletako, ibilgailu mistoetako eta nekazaritzarako ez diren ibilgailu-multzoetako gidariak eta babes eta laguntzarako ibilgailu pilotuetako gidariak eta laguntzaileek ikusgaitasun handiko txaleko distiragarriak erabili behar dituzte, 1407/1992 Errege Dekretuaren arabera egiaztatuak. Errege Dekretu horren bitartez, herriz kanpoko bideetan ibilgailutik atera eta galtzada edo bazterbidean ibiltzeko nahitaez erabili behar diren babes indibidualerako ekipoak arautu ziren.

**43. artikulua (66. artikulua, 6/2015 ED) (39. artikulua, 1428/2003 ED)**

Debekatuta dago ordenantza honen xede diren bide publikoetatik motor txikiekin zirkulatzeko, izen komertziala edozein dela ere.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

## III. ATALA

**HIRITIK MUGITZEKO IBILGAILUAK (6/2015 EDREN 7. ARTIKULUA)****44. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua).— *Hirian mugitzeko ibilgailuen zirkulazioa eta erabilera***

1. Hirian mugitzeko ibilgailuak ibilgailu gisa definitzen dira. Ordenantza honen ondorioetarako, hirian mugitzeko ibilgailutzat hartzen dira gizakiari beren muskulu-indarraren bidez mugitzen laguntzeko gai diren ibilgailuak, eta zikloen ezaugarriak hobe eta motor elektrikoa izan ditzaketenak. I. eranskinean jasotzen dira, DGTren 16/V-124 jarraibideak ezartzen duen moduan.

2. Atal honetan aipatutakoa eskumeneko agintariak ibilgailu hauen sailkapen, homologazio, erabilera-baldintza eta zirkulazioaren inguruan onartzen dituen arau eta araudien mende geratuko da.

**45. artikulua.— *Zirkulaziorako baldintza orokorrak***

- a) Ibilgailuen trafikoaren noranzko berdinean ibiliko dira, zirkulazio-arauak errespetatuz, eta bi noranzkoetan kaleetan eta oinezkoen eremuetan.
- b) Oinezkoak igarotzen diren eremuetan 6 km/h baino txikiagoko abiadura batean ibiliko dira, oinezkoekin 1,50 m-ko tarte utziz, betiere haiek igarotzeko duten lehentasuna errespetatuz.
- c) 1 metroko distantzia mantenduko dute fatxada-lerroarekiko.
- d) Garraio publiko kolektiboaren igarotzeko lehentasuna errespetatuko dute, aurreratzeko maniobra erraztuz, eta beharrezkoa bada, geldituz.
- e) Besoa mugituz adieraziko dituzte maniobrak.

**46. artikulua.— *Betebeharrak eta nahitaezko dokumentazioa***1. *Betebeharrak*

- a) Txaleko islatzailea eta kasko homologatuak eramango dituzte galtzadatik ibiltzen direnean, eta gainerako bideetan komenigarria da.  
B eta C motako ibilgailuek txirrina, argia, eta behar bezala homologatutako elementu islatzaileak eraman behar dituzte.  
B motako hiri-mugikortasuneko ibilgailuen erabiltzaileek kasko eraman behar dute.
- b) Ezingo dira lotu martxan dauden beste ibilgailu batzuetara.
- c) C1 eta C2 motakoak 18 urtetik beherakoek gidatu beharko dituzte.  
Bide eta eremu publikoetatik hiri-mugikortasuneko ibilgailu batekin ibiltzeko gehienez 16 urte izan daitezke. 16 urtetik beherakoek beren adin, garaiera eta pisurako egokiak direnean bakarrik erabili ahalko dituzte hiri-mugikortasuneko ibilgailuak, zirkulazio-eremuetatik kanpo, trafikorako itxita dauden eremuetatik, eta bere guraso edo tutoreen erantzukizunpean. Gailu homologatu batean pertsonak garraiatzen badituzte, gidariek adin nagusikoak izan beharko dute.
- d) Debekatuta dago %15 baino handiagoko maldetatik ibiltzea hiritik mugitzeko ibilgailuekin.
- e) Ez dute bat-bateko maniobrarik egingo, ez eta ausarkeriazko aurreraterik ere.
- f) Gauean ezingo dira galtzadatik ibili, eta gainerako bideetatik aurreko argia eta atzeko argi gorria eraman beharko dute.

Talde eta alokairuko enpresetarako:



- a) Taldeka ibiltzen badira, gehienez, 6 erabiltzaile joango dira, bideen zabalera hartu gabe eta binakako ilaran ibiliz gehienez.
- b) Taldeek nahitaez gidari bat eraman beharko dute.
- c) Taldeen artean 75 m-ko tartea mantendu beharko da.

## 2. Dokumentazioa

Hiriko mugikortasuneko ibilgailu eta gailuen gidariak dokumentazio hau eraman beharko dute agintaritza-agenteen eskura:

- NAN edo AIZ.
- Hirian mugitzeko ibilgailu edo gailuaren homologazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Erantzukizun zibileko aseguruia (16/V-124 DGT jarraibidearen 4. puntua).

## 47. artikulua.—Zirkulaziorako berariazko baldintzak

### 1. A eta B motako ibilgailuak

Irizpide orokor gisa, 16/V-124 jarraibidean jasotzen diren A eta B motako hiri-mugikortasuneko gailu eta ibilgailuak ibil daitezke, hemen:

- a) 30 km/h baino txikiagoko abiadura muga duten bideen galtzadan, behar bezala seinaleztatuta daudenak. Zirkulazio-abiadura 30 km/h baino txikiagokoa bada, B motako ibilgailuak bakarrik ibili ahalko dira.
- b) Gutxienez, oztoporik gabeko 3 m-ko zabalera duten oinezkoen kaleetatik, behar bezala seinaleztatuta, zirkulazioan, gutxienez, metro bateko distantzia mantenduz eraikinen fatxadarekin. Halaber, gutxienez, metro bateko tartea utzi beharko da oinezkoekiko aurreratzean eta gurutzatzean.
- c) Bizitegiak dauden kaleetan, behar bezala seinaleztatuta, betiere oinezkoen kaleen gainerako baldintzak betetzen badituzte.
- d) Parkeak. Zirkulazio-baldintzak betez ibili ahalko dira oinezkoak igarotzen diren eremuetatik, betiere landareak dauden edo igarotzea debekatuta dagoen eremuak errespetatuz.
- e) Espaloietatik, betiere espaloiak gutxienez lau metroko zabalera osoa duten kaleetan, eta gutxienez, hiru metroko tartean hiri-altzariak, zuhaitzak edo bestelako oztopo finkoak ez badaude.

### 2. C0 ibilgailuak

Mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzeko diren C0 motako hiri mugikortasuneko ibilgailuak eta gailuak ibil daitezke:

- a) 30 km/h baino txikiagoko abiadura muga duten bideetan, eta ibiltzeko moduko espaloirik ez badago. Galtzadaren eskuineko aldetik hurbilen dagoen eremutik joan beharko dute.
- b) Oztoporik ez dagoen oinezkoen kaleetatik. Nahikoa segurtasun-distantzia mantendu beharko dute oinezkoekin aurreratzean edo gurutzatzean.
- c) Parkeak. Oinezkoen eremuetarako zirkulazio-baldintzak betez eta landaretza dagoen eremuak errespetatuz ibili ahalko dira.
- d) Espaloietatik, dimentsioak hori egiteko aukera ematen duten kaleetan, horrek, oinezkoentzat arriskurik eta eragozpenik ekarri gabe.
- e) Dena den seinaleak eta zirkulazio-arauak errespetatu beharko dituzte.

### 3. C1 eta C2 ibilgailuak

- a) C1 eta C2 motako hiri-mugikortasuneko ibilgailuak galtzadatik joango dira, eta ezingo dute inola ere espaloiak erabili, salgaien zamaletarako izan ezik.
- b) Udal agintariek aldeztatik utzitako oinezkoen bideetatik.





Salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak oinezkoen eremuetatik igaro ahalko dira, aldez aurretik udalaren baimena badute, eta berariaz uzten duten egun eta orduetan. Halaber, galtzadarekiko perpendikularrak diren ibilbideetan espaloitik ibili ahalko dira, establezimenduren batean zamalanak egiteko bakarrik.

- c) Dena den seinaleak eta zirkulazio-arauak errespetatu beharko dituzte.

#### **48. artikulua. — Hirian mugitzeko ibilgailuen aparkatzea**

Hirian mugitzeko ibilgailuen aparkatzeari dagokionez, baldintza hauek ezartzen dira:

- a) C0 motako ibilgailuek, mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzeko direnek, espaloietan eta oinezkoen eremuetan aparkatu ahalko dute, oinezkoen igarotzea oztopatu gabe. C1 eta C2 motako ibilgailuak horretarako utzitako eremuetan bakarrik aparkatu daitezke.
- b) A eta B motako ibilgailuak xede horretarako dauden berariazko lekuetan aparkatu behar dira lehentasunez. Inguruan ez badago lekurik, edo beteta badaude, ordenantza honek debekatu gabeko bideko beste zati batzuetan aparka daitezke, berariaz arau hauek betetzen badira:
  - 1) Ezin dira zuhaitz, semaforo, eserleku, edukiontzi, paperontzi, garraio-markesina eta hiri-altzarien elementuetara lotu elementuaren xedea edo funtzionaltasuna eragozten bada.
  - 2) Ezin da aparkatu mugikortasun murriztuko pertsonentzako aparkalekua dagoen eremuaren, galtzadan zamalanak egiteko edo zerbitzu publikorako dagoen eremuaren aurrean, erreserbatuta dauden orduetan.
  - 3) Debekatuta dago aparkatzea beste erabiltzaile edo zerbitzu batzuetarako dauden lekuetan, eta bizikletak alokatzeko zerbitzu-eremuetan.
  - 4) Debekatuta dago espaloietan aparkatzea oinezkoen igarotzea eragozten bada.

Oinezkoen zirkulazioa bermatzeko, ezingo da aparkatu hiri mugikortasuneko ibilgailua aparkatu espaloian, oinezkoei eragozten bazaie edota oinezkoen aglomerazioa badago.

Edonola ere, ez da aparkatzen utziko oinezkoak igarotzeko dagoen espaloieremuan, itsuei eragozteko saihesteko.

#### **49. artikulua. — Hirian mugitzeko ibilgailuetarako murrizketa orokorrak**

Zirkulazioari buruzko arautegi orokorrarekin bat:

Ezingo dira gidatu hiri mugikortasuneko ibilgailuak hargailuei edo soinu-erreproduzitaileei konektatutako kaskoak edo aurikularrak erabiliz, ez eta telefono mugikorra edo gidatzeari arreta etengabe jartzeko betebeharrarekin bateragarria ez den beste edozein gailu eskuz erabiliz.

Hirian mugitzeko ibilgailuen gidariak gainerako gidarien betebeharrak eta murrizketa berak dituzte, edari alkoholodun, sorgogarri, psikotropiko, estimulatuzaile edo antzeko beste gai batzuk hartuta gidatzeari dagokionez.

#### **50. artikulua. — Hirian mugitzeko ibilgailuak eta bizikletak kentzea**

Trafikoa zaintzen duten udaltzainek hirian mugitzeko ibilgailuak eta bizikletak kendu ahalko dituzte, Ordenantza honetan ezartzen diren kasuetan edo utzita daudela uste badute.

Bide publikotik kendu aurretik, eskumeneko agintariek, eragindako hiri-mugikortasuneko ibilgailuaren (HMI) argazki bat aterako dute, ibilgailua erreklamatzeko dutenean eskatu ahalko dena.

Kendu ondoren, nahitaezko abisua jarriko dute toki horretan, titularrari jakinarazteko.

Behin HMI kenduta, udal gordailuan gordeko da, jabeak berreskuratu edo erakunde-  
ren bati eman arte, kentzen den egunetik hiru hilabete igarotakoan.

**51. artikulua.—Hiri-mugikortasuneko ibilgailuak (HMI) xede ekonomikoekin erabiltzea. HMlen alokairu-enpresetarako betebeharrak eta nahitaezko dokumentazioa**


Bermeoko udalerrian zerbitzuak emateko, HMIak alokatzen dituzten enpresa pribatuek horretarako titulua izan beharko dute.

Titulu hori lortzeko, Udalak jabari publikoaren aprobetxamendua lizitaziora ateratzea ebaztiko balu baldintzen pleguak ezar dezakeena gorabehera, interesdunek dokumentazio hau izan beharko dute:

- Ibilgailua gaizki ibiltzearen edo narriaduraren ondorioz, pertsona eta ondasunei, nahiz HMlen erabiltzaileei eragindako kalteak barne hartzen dituen erantzukizun zibileko aseguruua.
- Hiri-segurtasun neurriak (txalekoak, kaskoa), eta ibilgailuenak (argiak, galgak, abiadura-mugagailuak, txirrina...).
- Hiri-mugikortasuneko ibilgailuen homologazio-dokumentua (zenbaki batekin identifikatuko dira, eta bastidore-zenbakiarekin lotuta egongo dira).
- Hiri-mugikortasuneko tresnen aparkatzeko ohiko lekua zehaztea zerbitzuen arteko itxaron tarteetan, eta gelditzeko guneak ibilbidean zehar, gidariek emandako azalpenengatik. Oinezkoen edo ibilgailuen igarotzea eragozten ez duten tokietan aparkatu beharko da.
- Erantzukizunpeko adierazpena, alkoholaren edo drogen eraginpean dauden sintomak dituzten erabiltzaileei tresnak edo HMI erabiltzea ez uzteko konpromisoa hartuz.
- Banatzaileak edo salmentako komertzialak egindako dokumentazioa, edo eskatutako abiadura muga eta tara egiaztatzen duen ziurtagiria.

**I. ERANSKINA**

Ezaugarriak	A	B	C0	C1	C2
Gehienezko abiadura	20 km/h	30 km/h	45 km/h	45 km/h	
Masa	≤ 25 kg	≤ 50 kg	≤ 300 kg	≤ 300 kg	
Edukiera handiena (pertson)	1	1	1	3	
Zabalera handiena	0,6 m	0,8 m	1,5 m	1,5 m	
Erradio bira handiena	1 m	2 m	2 m	2 m	
Aurreko arriskugarritasun azal.	1	3	3	3	
Altuera handiena	2,1 m	2,1 m	2,1 m	2,1 m	
Luzera handiena	1 m	1,9 m	1,9 m	1,9 m	
Txirrina	Ez	Bai	Bai	Bai	
Geldiarazita	Ez	Bai	Bai	Bai	
Salgai-hiri-banaketa	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Ordainketa Bidaiari-garraioa	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez



4 arrisku-maila:

- Aurreko garaiera 0,5 m, angelu arriskutsurik gabe.
- Aurreko garaiera 0,5 m baino handiagoa, angelu arriskutsurik gabe.
- Aurreko garaiera 0,5 m baino txikiagoa, angelu arriskutsuekin.
- Aurreko garaiera 0,5 m, angelu arriskutsuekin.

III. ataleko artikulua ez badira betetzen, larritzat hartuko dira, berriro errepikatzea-gatik, gertaeren larritasunarengatik, eta arau-haustea hauslearentzat hautsitako araua betetzea baino onuragarria ez izateagatik salbu, izan ere, kasu horretan, oso larritzat hartu ahalko dira.

#### IV. ATALA

#### OINEZKOAK (6/2015 EDREN 49 ARTIKULUA)

##### 52. artikulua (6/2015 EDren 49. artikulua) (1428/2003 EDren 121. artikulua)

Oinezkoek berentzat bereziak dauzkaten espaloietan, ibiltokietan eta nasetan zehar zirkulatu behar dute. Galtzadan barruan ere mugitu ahalko dira kontuz eta beharrezko neurriak hartuta, zirkulazioari enbarazu egin gabe, hurrengo kasuetan:

1. Espaloitik joanez gero gainerako oinezkoei traba egingo lieketen tamaina handiko objektuak daramatzatenean.
2. Oinezkoen talderen bat segizioan edo baimendutako manifestazioan doazenean.
3. Elbarriak aulki gurpildunen gainean mugitzekotan.
4. Beraientzako espaloie edo eremu gorderik ez dagoenean, galtzadaren erdigunetik ahalik eta urrutien ibiliko dira.

##### 53. artikulua (6/2015 EDren 49. artikulua) (1428/2003 EDren 124. artikulua)

Oinezkoek ahalik eta arreta handienarekin gurutzatuko dute galtzada, eta honako neurri hauek hartuz:

1. Semaforoz erregulatutako oinezkoen pasaguneetan zehar, haientzat den argizko seinaleak bidea ematen dietetan baizik ez.
2. Agintaritzaren agenteek araututako pasabideetan, beti haien esanak betez gurutzatuko dute galtzada, eta gurutzatzeko baimenik ez duten bitartean, ez dira galtzadan sartuko.
3. Oinezkoentzat seinalatutako pasagunerik ez badago 50 metroko inguru batean, kantoietatik gurutzatu behar dute haiek alde batetik bestera, bidearen ardatz gainean norabide perpendikularrean. Kasu horretan, bidea zeharkatu baino lehena-go ibilgailuen zirkulazioa ez dela oztopatuko ziurtatu beharko da. Ibilgailuei pasatzen utzi beharko zaie; horretarako, beharrezkoa bada, oinezkoa geratu egin beharko da, nahiz eta galtzada zeharkatzen egon.



4. Ezingo da galtzadatik eta espaloietatik zirkulatu irristailuekin, gurpil-oholekin edo antzeko kategoriako tramankuluekin. Hala, udalak horretarako seinaleztaturako lekuetan soilik zirkulatu ahal da horiekin. Eskuan eramango dira eta ezingo dira inola ere lurretik mugitu.

## V. ATALA

**ANIMALIAK****54. artikulua (6/2015 EDren 50. artikulua) (1428/2003 EDren 126. artikulua)**

Arau orokorrak. Ordenantza honek araututako bideetatik ibili, abelbide erabilgarririk ez dagoenean eta norbaitek zainduta dabiltzanean baino ezin izango dira ibili lor-abe-reak, zamariak, zelako abereak eta abelburuak; azken horiek, ordea, bakarka nahiz taldean edo aldraka ibil daitezke. Ibilgailu zirkulazio intentsitate txikiagoa duen beste bide batetik igaroko da.

Udal agintaritzak baimena eman ahal izango du abereak zenbait lekutan mugitzeko, beste erabiltzaileentzat arriskurik ekarri gabe, eta bai haiek direla medio zenbait ekintza eta ospakizun egiteko ere.

## VI. ATALA

**OINEZKOENTZAKO EREMUAK****55. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (121. artikulua, 1428/2003 ED)**

Oinezkoentzako esparruak dira bide publikoaren eremuak, oinezkoak zirkulatzeko erreserbatuak, gainera jasoak edo beste modu batera mugatuak daudenak. Udal agintaritzak aginduta, haietan debekatua dago ibilgailuak, guztiak edo parte, zirkulatzeko edo eta aparkatzea.

**56. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (121. artikulua, 1428/2003 ED)**

Oinezkoentzako guneeetako sarrerek eta irteerek behar bezala seinaleztaturik egon beharko dute; seinale horiek egon arren, gune horietan ibilgailuak sartzea eta zirkulatzeko eragotziko duten bestelako elementu mugikorak ere ipini ahal dira. Gunearen diseinuak, egiturak, apainketak edo zoladurak argi uzten badu oinezkoentzako gunea dela, ez da derrigorra izango bestelako seinalerik jartzea.

**57. artikulua (21. artikulua, 6/2015 ED) (121. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bai oinezkoentzako esparruetan, bai espalo gabeko galtzadetan eta bidezkoen joera handia dagoen lekuetan, ibilgailuak sartzea baimenduta dagoenean, zeinek bere abiadura murriztu beharko dute oinezkoen ibilerari egokitzeko eta premiazkoa balitz, gelditu ere egingo dira beharreko kontuak hartuz inor azpian ez harrapatzekotzat. Oinezkoentzako guneeetan gehieneko abiadura 10 km/ordukoa izango da beti.

**58. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (121. artikulua, 1428/2003 ED)**

Oinezkoentzako guneeetan ibilgailuak zirkulatu edo aparkatzeko debekuak ezaugarri hauek izan ditzake:

1. Esparruak berak bere mugapean inguratutako bide guztietaraino edo haietako batzuetaraino iritsi ahal izango da.
2. Debeku finkoa edo asteko egun jakin batzuetakoa soilik ahal izango da.
3. Aurrez zehazturiko ordutegi mugatu bat izan dezake, edo ez.

**59. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (121. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gune horietan ez dira behin ere oztopatuko honako ibilgailu hauen sarbidea:

1. Su-hiltzaileen eta salbamenduko ibilgailuak, Poliziarenak, anbulantziak eta ur-gentzia medikoko zerbitzuaren ibilgailuak, eta, oro har, zerbitzu publikoak emateko baimena duten ibilgailu guztiak.



2. Gaixoak edo elbarriak garraiatzeko diren ibilgailuei.
3. Etxebizitza, saltokia edo bestelakoren bat oinezkoentzako gunean izateagatik, bertan sartzeko baimena dutenen ibilgailuak (Zazpi Kaleetako UB).

## VII. ATALA

**OZTOPOAK BIDE PUBLIKOAN****60. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (5. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ordenantza honek barne hartzen dituen bideetako erabiltzaile guztiek besteei arriskua edo kaltea saiheste aldera bidetik edozein oztopo kentzeko edo seinaleztatzeko eginbeharra dute.

**61. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (5. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bide publikoan edukiontziak, mahaiak, kioskoak, saltokiak, txosnak edo beste edozein oztopo jartzekotan, udal baimena behar da eta baimenaren edukitzaileek ematen zaizkien ohar guztiei kasu egin beharko diete, babespenaren, seinaleen edo argien kontura, beste erabiltzaileen segurtasuna gorde nahi bada.

**62. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (5. artikulua, 1428/2003 ED)**

Udal Agintaritzak oztopoak kentzeari ekingo dio ofizio bidez, gastuak ekoizleen gain jarritz, ondoko gorabeheraren bat ematen denean:

1. Agintariak eskatzen duenean, dagokion baimena ez aurkeztea.
2. Baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.
3. Bere garaian baimena emateko izandako arrazoiak desagertzen direnean.
4. Baimenaren denbora amaitzen denean.
5. Udalaren baimen egokia ez izatea.

**63. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (5. artikulua, 1428/2003 ED)**

Udalak, beharrezkoa denean, bere kontura kenduko ditu kalean dauden trabak; adibidez, segurtasun, garbitasun edo osasun arrazoiengatik hala egin beharrenean aurkitzen denean. Baita obrak egiteko edo ikuskizunak antolatzeko beharrezkoa zaionean, baimena duten jarraigoak pasatu behar direnean, eta neurri hori hartzeko antzerako motibo garbiren bat dagoenean.

**64. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (5. artikulua, 1428/2003 ED)**

Edukiontziak, beilariak, kioskoak, dendereteak eta gainontzeko hiriko elementuak jartzeko gordeta dauden lekuak errepidean baleude estazionamendurako gordeleku izaera izango dute. Aparkamendua erreserbatzeagatik tasa Bermeoko Udaleko ordenantza fiskal egokian ezarritakoa izango da.

## VIII. ATALA

**SEINALEAK****65. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ezin da inolako zirkulazio seinalerik jarri aurretik udal baimenik izan gabe, Udaltzaingoaren buruzagitzak aldeko txostena egin ondoren.

Debekatuta dago bideko trafiko-seinaleak hondatzea, kentzea edo aldatzea, finkoa zein egoeraren arabera izan.

**66. artikulua (55. artikulua, 6/2015 ED) (137. artikulua, 1428/2003 ED)**

Seinaleak hobeto uler daitezzen, beren azpian ezarritako taula osagarrietan inskripzioak jarri ahalko dira. Las inscripciones en panel complementario unido al mástil de sujeción de la señal podrán ser redactadas en euskara y castellano.

Ez da publizitatea jartzea utziko.

**67. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Seinaleari eusteko mastari lotutako panel osagarrian doazen inskripzioak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

**68. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Debekatuta dago zirkulazio seinale bertikaletan edo seinale horien ondoan zuhaitzak, landareak, markesinak, instalazioak eta edozein motatako iragarkiak jartzea; izan ere, eragozpen izan litezke seinale horiek ondo ikusteko edo arreta jartzeko.

**69. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Udalak berehala kenduko ditu beharrezko baimena ez duten edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituzten iragarkiak; horiek kentzeko gastuak jarri dituztenek edo iragarkietatik onura ateratzen dutenenek ordainduko dituzte.

## IV. KAPITULUA

## I. ATALA

## LANAK-ARAU OROKORRAK

**70. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Kontratistek edo partikularrek lanak edo obrak bide publikoan egiten badituzte udal ordenantza honek erregelatutako bideetan libre zirkulatzeari erasan ahal diotenak, premiazko seinaleak eta zutolak jarri beharko dituzte lanen egikaritzapeneko aldian, ordenantzan bertan Seinaleztapeneko elementuak deritzan atalean azalduko diren arauekin bat datozeela.

**71. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bide publikoan lanak egikaritzeko dituztenek, beharreko udal baimena hartarako jasota, agiria ekarriko dute Zerbitzuen Udal Sailera, azaltzen dituztela obratan jarri beharreko seinaleen bereizkundeak eta zer-nolakoak, lanak inoiz hasiko badira aginduzkoa da eta, Udaltzaingoko sailak onartzea.

**72. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Lanak beti bidearen leku berean izan beharrean bide horretan zehar tokiz aldatzen direnean, obraren zuzendariak hasierako proiektuan aldaketak eta gehikuntzak egin ahaliko ditu proiektu hori obra zati bakoitzari egokitzeko; udaltzainei berehala deitu beharko die aldaketa horiek ikuska ditzaten.

**73. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ezin hasiera emango zaio inongo obrari, udal ordenantza honek gobernaturako bideetan libre zirkulatzeari eragin ahal izango dionik, alde aurretik beharreko seinaleak eta zutolak jarri izan ez badira, eta behar balira, babesgarriak.

**74. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Seinale, balizaje eta babes elementuak jarri dituenak kendu edo aldatu egin beharko ditu, horiek jartzeko arrazoiak desagertu edo aldatzen direnean; besteak beste, oztipoa desagertzen denean, eta haien beharrik ez dagoen edozein momentutan, bereziki gaueetan eta jai egunetan.

**75. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Obrak egiten dituzten kontratista, partikular edo erakundeek berek lortu, gorde eta kendu beharko dituzte seinaleak, balizak eta babeserako elementuak. Bermeoko udaltzainek seinaleak jarri behar izanez gero, seinalerik ez dagoelako zein ezegokiak edo akastunak direlako, Udal Zerbitzuek jarri dutelako, eta obran bi ordu baino gehiagoz jarrita egon behar delako, eraikuntzako enpresak seinaleak mantendu egingo ditu astebeteko epean erabilitakoen kopuru eta mota bereko seinale berri batzuk itzuliz.

**76. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Obrak amaituta, libratu baino lehenago, garbitu bat emango zaio guztiari eta erauziko dira soberakinak eta hondakinak, erremintak, zaborrak, obra lagungarriak, instalazioak, biltegiak eta eraikuntzak, guztiak batera jota, bermeko aldia bete artean kontserbatu beharrekoak ez direnak. Garbiketa hori bidearen jabari, zortasun eta ukipeneko eremuetarainokoa ere izango da, hala nola behin-behinean okupatutako lursailetarainokoa; bai batzuk eta bai besteak lehenago moduan geratu beharko dira obrak egin aurretik zeuden bezala, edo ingurukoak artean dauden bezalatsu.

**77. artikulua (56. ART., 6/2015 ED) (134. artikulua, 1428/2003 ED)**

Indarrean dagoen Zirkulazio Araudi Orokorrean dauden seinaleetatik aparteko seinaleak erabiltzea debekatuta dago (1428/2003 ED, azaroaren 1ekoa). Galtzadatik kanpo dauden eta testu idatzia duten seinaleen kasuan, Zirkulazio Araudi Orokorrean ezarritakotik aldendu ahalko dira, seinale horiek jarriko diren lekuko inguruabar zehatzetara egokitzeko.

**78. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gidari kontzienteak hartu beharreko neurriak baldintza normaletan erosotasunez hartu ahal izan ditzan, eta maniobrak erosotasunez egin ahal izan ditzan, ahalik eta seinalearik gutxien erabiliko da. Ahal dela, ez da gidariaren arreta sobera kargatu behar, behar ez diren seinaleekin, gidariak informazio argia badauka. Oro har, hobe da trafiko arautzeko seinale osagarriak jartzea, arriskua adierazten duen seinale bera behin eta berriz jartzea baino; izan ere, horrela informazio gehiago ematen da.

**79. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Seinale edo balizen arteko distantziak ez du arau orokorarekin zerikusirik, eta seinaleak kasu bakoitzean adierazten dituen maniobrak aria-arian interpretatzeko irizpideari jarraituko zaio.

**II. ATALA****SEINALEZTATZEKO ELEMENTUAK****80. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (132. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gutxienez galtzadaren zati bat hartzen duten lanen seinaleztapenak elementu hauek izan beharko ditu derrigor:

- Arrisku-seinalea: «Lanak» (P-18).
- Hesia, galtzadatik erabil ezin daitekeen eremua aurrez aurre mugatzekotzat.
- Argi-seinaleak, argi horiko balizak hain zuzen; eguzkia sartu eta sortu bitartean piztuta egon beharko dira, eta lanen gunearen hasiera eta amaiera mugatu beharko dute.

**81. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gutxienez 10 metro eta gehienez 25 metro egongo dira «Lanak» plakaren eta hesiaren artean. Plaka hori jartzeko lekua erabakiko da tarte horretako ikuspenaren arabera, trafikoaren abiadura errealearen arabera, eta seinalearen eta hesiaren artean jarri beharreko seinale osagarrien kopuruaren arabera.

**82. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Lanak bideen elkargune batetik gertu hasten badira, seinaleztapenaren distantzia galtzadaren egoerari egokitu beharko zaio, obrarantz zirkulatzen ari direnek modu argian izan dezaten lan horien berri.

**83. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Egoeraren arabera, honako elementu hauek ezarri ahalko dira, seinaleztapena osatu, argitu edo areagotu nahi bada:

- a) Abiaduraren mailaz mailako mugapena, 30naka km/h gehienez, errepide horretarako xedatutakotik guztiz gelditzeraino, behar balitz (R-301).
- b) Mugapenaren lehenengo seinalea «Lanak» adierazten dituen arrisku-seinalearen aurretik para daiteke.
- c) Zirkulazioak mugatutako eremuan daukan araubidearen oharra (P-25, R-6, R-5, R-305).
- d) Ibilgailuen orientazioa nondik desbidera daitezkeen (R-400c).
- e) Okupatutako eremuaren luzetarako mugapena.

**84. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (45. artikulua, 1428/2003 ED)**

Abiadura muga ezingo da izan segurtasun baldintza normaletan egoerak eskatzen duena baino handiagoa.

**85. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Eragindako tartea ikuspen eskasa daukanetan edo trafikoaren dentsitate handiko bi-deetan badago, nahiz eta dentsitate hori behin-behinekoa den, trafikoa erregulatzekotzat langileak enplegatuko dira esku-seinaleak darabiltzatela, aldian eta lekuan bertan ikus-teko modukoak, edo bestela, enpresak ezarritako semaforo alternatiboak, aldez aurretik Udaltzaingoko buruzagitzari jakinaraziz.

**86. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bideko erretegi bat okupatuta dagoenean, beste erretegi biko behinik behin daudela norabide berean, R-400 plaka ipiniko da 45 graduko angelu batean desbideratzea seinaltzeko.

**87. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (139. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bidearen aldeetako arriskuak edo oztopoak mugatu beharra badago, konoak edo konozutolak, hesiak edo seinaltzeko zinta txandakatuak erabiliko dira; debekatua dago bada, obretako gaiak usatzea, esateko moduan, zintarriak, hondar-metak, bidoiak, eta beste.

**88. artikulua (57. artikulua, 6/2015 ED) (140. artikulua, 1428/2003 ED)**

Seinale guztiak gauaz ikusten errazak eta argiak izan behar dira, islatzaileak, beraz. Hesiak argi gorriak izango dituzte beren ertzetan, hesi horiek ikusten dituenaren noranzko berean ezarrita. Galtzadaren erdian egotekotan, zirkulazio-norabide bikoitzarekin gainera, argi horiak edukiko dituzte muturretan.

**89. artikulua (58. artikulua, 6/2015 ED) (142. artikulua, 1428/2003 ED)**

1. Debekatuta dago bideko trafiko-seinaleak hondatzea, kentzea edo aldatzea, finkoa zein egoeraren arabera izan.

2. Halaber, enpresa eraikitzaileak edo udaltzainek bidea mugatzeko edo seinalez-tatzeko jarritako balizaje-elementuak aldatu, kendu edo manipulatzeko dituen zigortu egingo da.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.





## V. KAPITULUA

**GELDIALDIAK ETA APARKALDIAK**

## I. ATALA

**GELDIALDIEN ARAUBIDEA****90. artikulua (6/2015 EDren 39. artikulua) (6/2015 EDren 81. artikulua, I. Eranskina)**

Geldialdia deritza ibilgailu baten ibilgetze guztiari pertsonak hartzeko edo uzteko, edo gauzak kargatzeko edo deskargatzeko eginda, edo beste edozein egintzari, hura bidean 2 minutu baino gutxiagoko denbora batean geldiarazita, gidariak utzi gabe; ez da geldialditzat joko uste gabeko edo behin-behineko geldialdia zirkulazioaren premiengatik eraginda.

**91. artikulua (39. artikulua, 6/2015 ED) (90. artikulua, 1428/2003 ED)**

1. Espalorik gabeko kaleetan, geldialdia hurbileneko fatxadatik gutxienez metro batera egin beharko da, bestelakorik agintzen ez duen seinalerik egon ezean.

2. Zirkulazioaren bi noranzkodun kaleetan geldialdia galtzadan bertan egitekotan, martxaren noranzkoaren arabera beraren eskuineko ertzetik al bait hurbilen utziko da ibilgailua, zirkulatzeko 3,00 m-ko erreia utziz.

3. Zirkulazioaren noranzko bakarreko kaleetan geldialdia galtzadaren albo bietan egin ahal izango da, betiere espaloitik al bait hurren jartzen bada eta trafikoa oztopatzen ez badu, zirkulatzeko 3,00 m-ko erreia utziz.

**92. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Ibilgailua geratzeko prestaturiko eta seinalezaturiko eremuren bat baldin badago ibilgailua geratu nahi den tokitik 40 metroko inguruan, debekatuta dago ibilgailua geratzea. Larrialdiren batean geldialdia bigarren ilaran egin behar bada, zirkulazioa oztopatuko ez den lekuan egin beharko da, eta gidariak ezingo gu ibilgailua utzi.

**93. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Auto-taxiek Bermeoko udalak zerbitzu horretarako ematen dituen lizentzietan zehaztutako moduan eta eremuan aparkatuko dute; gainerakoan, ordenantza honetako geldialdiei buruzko araubidea beteko dute.

**94. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Autobusak, bai hiri barrukoak edo hiriartekoak eta bai eskatu ahalako zerbitzukoak, ezin geldituko dira udal agintaritzak berariaz seinalatu edo xedatutako geralekuetan baizik, bidaiariak hartzeko edo uzteko. Eskola-garraioaren kasuetan, Udal agintaritzak berak errekerituko du irakastegietako zuzendaritzetatik, ikasleen garraioko zerbitzua kontratatua badaukate, proposatutako ibilbideen berri bidal dakion eta horiek ikusi eta onartutakoan geralekuak finkatuko ditu harako agintaritzak hark bidaia bakoitzerako egokiak iritzi bezala; ez da egongo beraz, ikaslerik jasotzerik eta uzterik ere, geraleku horietan baizik.

**95. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Bertako gidarien eskoletako arduradunei ere galdegin ahal die halaber, udalbarrutian zirkulazioaren irakaskuntza ematerakoan, noizbait xedatzeko diren eremu, egun eta orduei eustea.

**96. artikulua (6/2015 EDren 39. artikulua) (1428/2003 EDren 90. artikulua)**

1. Geldialdia eta aparkatzea zirkulazioa oztopatu gabe egin beharko da eta ezin izango zaie bideko gainontzeko erabiltzaileei arriskurik eragin, eta horrez gain, arreta berezia jarriko da ibilgailuaren kokapenari dagokionez, eta gidaria bertan ez dagoenean ibilgailua mugitu ahal izatea ekidin beharko da.



Toki arriskutsuetan edo zirkulazioa larri oztopatuz gelditu edo aparkatu dela ulertuko da, hain zuzen, honako kasu hauetan zirkulaziorako arrisku edo oztopoak sortzen direnean:

- a) Ibilgailutik galtzadaren beste aldeko bazterrera arteko tartea, edo galtzada zeharkatzea debekatzen duen luzetarako marrara arteko tartea hiru metro baino txikiagoa denean; eta beste ibilgailuei pasatzen uzten ez zaienean.
- b) Behar den moduan geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailuren bati zirkulazioan sartzea galarazten zaionean.
- c) Eraikin batera sartu edo bertatik irteteko pasagunea normal erabiltzeko oztopo bada pertsona edo animalientzat edo, behar bezala seinaleztaturako ibietan, ibilgailuentzat.
- d) Ezindu fisikoentzako egokitutako pasaguneak normal erabiltzea oztopatzen denean.
- e) Erdibitzaileetan, bereizgailuetan, irlatxoetan edo zirkulazioa bideratzeko beste lekuetan egiten denean.
- f) Seinale bidez, jiratzea baimenduta egonda, jiratzeko aukera eragozten denean.
- g) Zama-lanerako guneeetan aparkatzen denean, lan horiek egiteko dituzten orduetan.
- h) Bigarren ilaran aparkatzen denean, gidariak ibilgailutik alde eginda.
- i) Garraio publikorako seinaleztatu eta mugatutako geralekuan aparkatzen denean.
- j) Larrialdi- eta segurtasun-zerbitzuko ibilgailuentzat berariaz seinaleztaturiko lekuetan aparkatzen denean.
- k) Lehentasunezkotzat jotako eta berariaz seinaleztaturako bide publikoko guneei debekatueta aparkatzen denean.
- l) Galtzada erdian aparkatzen denean.
- ll) Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez gain, oinezkoen, ibilgailuen edo animalien trafikoa arriskuan jarriz edo larri oztopatuz gelditu edo aparkatzen denean.

Toki arriskutsuetan edo zirkulazioa larri oztopatuz gelditu edo aparkatzea arau-haustea larritzat joko da, testu artikulatuaren 76. artikulua arabera (6/2015 ED).

2. Debekatuta dago gelditzea kasu hauetan: (6/2015 EDren 40. artikulua) (1428/2003 EDren 94. artikulua)

- a) Ikuspen gutxiko bihurtze eta malda-gainaldeetan, horien inguruetan eta tuneletan, azpiko pasaguneetan eta «Tunela» seinalearen eraginpeko bide-zatietan.
- b) Trenbide-pasaguneetan, txirrindularientzako pasaguneetan, eta oinezkoen pasaguneetan.
- c) Erabiltzaile zehatz batzuen zirkulazio edo zerbitzurako soil-soilik gordetako errietan edo bide-zatietan.
- d) Elkarguneetan eta elkargune-inguruetan, beste ibilgailu batzuei bira egiteko zailtasunak sortzen bazaizkie, edo, herriz kanpoko bideetan, ikuspen ezagatik arriskurik sortzen bada.
- e) Tranbien errailen gainean; baita bertatik hurbil ere, baldin eta tranbiaren zirkulazioa oztopatzeko moduan bada.
- f) Seinaleen eragina jasaten duten erabiltzaileek edo seinaleen ondorioz manio-brak egin behar dituzten erabiltzaileek seinaleak ikustea galarazten den tokietan.
- g) Autobide eta autobietan, horretarako prestatutako lekuetan izan ezik.
- h) Hiriko garraio publikorako soil-soilik izendatutako errietan, edo txirrinduentzako gordetako bideetan.
- i) Hiriko garraibide publikoek soilik erabiltzeko diren aparkatzeko eta gelditzeko eremuetan.
- j) Elbarriek bakarrik erabiltzeko seinaleztaturako guneeetan eta zebra-bideetan.
- k) Udaltzainek ezarritakoa ez bezalakoa den lekuan.



- l) Zirkulatzeko erreian, horrekin trafikoaren garapen normala oztopatzen denean.

**II. ATALA****APARKALDIEN ARAUBIDEA****97. artikulua (6/2015 EDren 39. artikulua) (6/2015 EDren 82. artikulua, I. Eranskina) (1428/2003 EDren 90. artikulua)**

Aparkatzea da ibilgailu bat bi minutu baino gehiagorako bidean ibilgetzea, betiere zirkulazioaren aginduz egiten ez denean. Gidariak ezin du ibilgailua utzi.

**98. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (92. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ilarako edo errenkadako aparkamendua, ibilgailuak bata bestearen ondotik paratuak daudena da.

**99. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (92. artikulua, 1428/2003 ED)**

Zeharkako edo bateriako aparkamendua, aldiz, ibilgailuak bata bestearen alboan edo saihetsean paratuak daudena da.

**100. artikulua (39. artikulua, 6/2015 ED) (90. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gelditu eta aparkatzeko, galtzadaren bazterraren paralelo kokatu beharko da ibilgailua.

Bidearen ezaugarriak medio, edo beste inguruabar batzuek eraginda, bestela kokatzeko baimenik ere izango da, salbuespenez bada ere.

**101. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (92. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bestelako seinalerik ezean, zirkulazioaren bi norabideko bideetan, martxaren norabideari jarraituz, galtzadaren eskuinaldean eta espaloitik albat hurbilen ilaran aparkatzea zilegi da, zirkulaziorako 3,00 m-ko erreia utziz.

Zirkulazioaren noranzko bakarra daukaten bideetan, modu berean ere aparkatzea dago eta bidearen zabalera eragozpenik eragin gabe aparkatzeko adinakoa bada bakarrik, galtzadaren ezkerrean ere egin daiteke, zirkulaziorako 3,00 m-ko erreia utziz.

**102. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (92. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bai ilaran aparkatzen denean, eta bai baterian aparkatzen denean, ibilgailuen arteko tartek pertsona bat normal pasatzeko modukoa izan behar du.

Gidariak, ibilgailua gelditu edo aparkatzen dutenean, libre dagoen gainerako gunea ahalik eta ondoen erabiltzeko moduan jokatu behar dute.

**103. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (92. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gidariak aparkatzerakoan beti hartu beharko ditu beharrezko neurriak, ibilgailuak berez higitzen hasterik izan ez dezan:

Ibilgailu motordunetako edo motor-bizikletetako gidariak, gidari-tokia utzi behar badute, honako arau hauek gorde beharko dituzte, aplikagarri zaizkien heinean:

- a) Motorra gelditu, eta martxan jartzeko sistema deskonektatu; eta ibilgailutik aldentuz gero, gidariaren baimenik gabe ibilgailua erabiltzea eragozteko behar diren neurriak hartu behar dituzte.
- b) Esku-balazta emanda utzi.
- c) Martxa-kutxa duen ibilgailuan, aldapan gora bada, lehenengo martxa sartuta utzi, eta aldapan behera bada, atzeraka ibiltzeko martxa; edo, bestela, aparkatzeko puntuan utzi.
- d) Baldin eta 3.500 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masako ibilgailuak, autobusak edo ibilgailu-taldeak aldapa handiko lekuan aparkatu edo gelditu behar badira, lehengoz gain, behar den moduan irmotuta utzi beharko dituzte ibilgailuok gidariak. Horretarako, batetik, euskarriak erabil ditzakete, baina ezin izango dira erabili harriak edo berariaz horretarako prestatutakoa ez den beste



gauzarik ere. Bestela, espaloiairen ertzaren kontra jarriko dute gurrpil gidari bat, galtzadaren erdira begira, maldan gora bada, eta galtzadatik kanpoaldera begira, aldapan behera bada.

Euskarriak, erabili eta gero, kendu egin behar dira bidetik, berriz abiatzerakoan.

**104. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua) (1428/2003 EDren 92. artikulua)**

1. Herri barruko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko araubidea udal-ordenantzen bidez arautuko da, eta zirkulazioa ez oztopatzeko behar diren neurriak hartuko dira, hala nola, aparkaldiaren iraupena mugatzeko ordutegiak, eta beste neurri zuzentzaile batzuk, ibilgailuak bertatik kendu eta gordailuan uztea barne, gidaria nor den jakin arte, aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzeko gaitzen duen titulurik gabe daudenean, edo baimendutako denboratik gora daudenean.

**105. artikulua (40. artikulua, 6/2015 ED) (91. artikulua, 1428/2003 ED)**

1. Toki arriskutsuetan edo zirkulazioa larri oztopatuz gelditu edo aparkatu dela ulertuko da, hain zuzen, honako kasu hauetan zirkulaziorako arrisku edo oztopoak sortzen direnean:

- a) Ibilgailutik galtzadaren beste aldeko bazterrera arteko tartea, edo galtzada zeharkatzea debekatzen duen luzetarako marrara arteko tartea hiru metro baino txikiagoa denean; edo beste ibilgailuei pasatzen uzten ez zaienean.
- b) Behar den moduan geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailuren bati zirkulazioan sartzea galarazten zaienean.
- c) Eraikin batera sartu edo bertatik irteteko pasagunea normal erabiltzeko oztopo bada pertsona edo animalientzat edo, behar bezala seinaleztatutako ibietan, ibilgailuentzat.
- d) Ezindu fisikoentzako egokitutako pasaguneak normal erabiltzea oztopatzen denean.
- e) Erdibitzaileetan, bereizgailuetan, irlatxoetan edo zirkulazioa bideratzeko beste lekuetan egiten denean.
- f) Seinale bidez, jiratzea baimenduta egonda, jiratzeko aukera eragozten denean.
- g) Zama-lanerako guneetan aparkatzen denean, lan horiek egiteko dituzten orduetan.
- h) Bigarren ilaran aparkatzen denean, gidariak ibilgailutik alde eginda.
- i) Garraio publikorako seinaleztatu eta mugatutako geralekuan aparkatzen denean.
- j) Larrialdi- eta segurtasun-zerbitzuko ibilgailuentzat berariaz seinaleztaturiko lekuetan aparkatzen denean.
- k) Lehentasunezkotzat jotako eta berariaz seinaleztatutako bide publikoko gune debekatuetan aparkatzen denean.
- l) Galtzada erdian aparkatzen denean.
- m) Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez gain, oinezkoen, ibilgailuen edo animalien trafikoa arriskuan jarritz edo larri oztopatuz gelditu edo aparkatzen denean.

2. Toki arriskutsuetan edo zirkulazioa larri oztopatuz gelditu edo aparkatzea arau-hauste larritzat joko da, testu artikulatuaren 76. artikulua arabera (6/2015 ED).

**106. artikulua (40. artikulua, 6/2015 ED) (94. artikulua, 1428/2003 ED)**

Debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea honako kasu hauetan:

- a) Ikuspen gutxiko bihurtze eta malda-gainaldeetan, horien inguruetan, eta tuneletan.
- b) En los pasos a nivel, pasos para ciclistas y pasos para peatones.
- c) Erabiltzaile zehatz batzuen zirkulazio edo zerbitzurako soil-soilik gordetako erreietan edo bide-zatietan.
- d) Elkarguneetan eta elkargune-inguruetan.



- e) Tranbien errailen gainean; baita bertatik hurbil ere, baldin eta tranbiaren zirkulazioa oztopatzeko moduan bada.
- f) Seinaleen eragina jasaten duten erabiltzaileek edo seinaleen ondorioz manio-brak egin behar dituzten erabiltzaileek seinaleak ikustea galarazten den tokietan.
- g) Autobia eta autobideetan, horretarako prestatutako lekuetan izan ezik.
- h) Hiriko garraio publikorako soil-soilik izendatutako erreietan, edo txirrinduentzako gordetako bideetan.
- i) Hiriko garraibide publikoek soilik erabiltzeko diren aparkatzeko eta gelditzeko eremuetan.
- j) Desgaituek bakarrik erabiltzeko seinaleztatutako guneeetan eta zebra-bideetan.
- k) Udal-agintariek denbora mugatuko aparkaleku moduan gaitutako lekuetan, baimenduta dagoela adierazten duen bereizgarririk izan ezean, edo bereizgarria izan arren udal-ordenantzan baimendutako gehieneko denboran baino denbora luzeagoan aparkatzen bada ibilgailua.
- l) Zama-lanetarako seinaleztatutako eremuetan.
- m) Pertsona minusbaliatuek baino erabili ezin dituzten guneeetan.
- n) Espaloi, ibiltoki eta oinezkoentzako pasagune gisa erabiltzeko diren gainontzeko eremuetan. Hala ere, udalerriek, udal-ordenantzaren bidez, bi gurpildun ibilgailuek eta motorrek espaloietan eta pasealekuetan gelditu eta aparkatu ahal izatea arautu ahal izango dute, baldin eta horietatik pasatzen diren oinezkoen joan-etorria kaltetu edo oztopatzen ez bada, tamaina handiko objekturen bat daramaten eta, batez ere, ezintasunen bat izan dezaketen pertsonen beharriaz erantzunez.
- f) Behar bezala seinaleztatutako ibien aurrean.
- g) Bigarren ilaran.

Artikulu honen a), c), g), h), i), j), k) eta l) letretan adierazitako tokietan, trenbide-pasaguneetan eta herriko garraio publikorako erreietan aparkatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

#### **107. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (93. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ezingo dute bide publikoetan aparkatu: atoiek eta karabanek, ibilgailu traktorarik gabe. Ezingo dira lotu hiri-altzarietara eusteko edo ainguratzeko elementu mekanikoak erabiliz.

Hakaber, ezingo dute aparkatu bide publikoetan autobusek, traktoreek edo baimendutako gehieneko zama 3.500 kilogramotik gorakoa duten ibilgailuek, berariaz baimendutako baldintza, toki eta aldietan izan ezik.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

#### **108. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (93. artikulua, 1428/2003 ED)**

Karabanek beren trakzio-ibilgailuarekin eta autokarabanek bide publikoetan aparkatu ahalko dute, bide-markek mugatutako aparkalekuaren dimentsioak gainditu gabe. Halaber, ezingo dira sartu zirkulazio-erreietan, oztopatuz, ezta elementu mugikorrak edo tresnak utzi ere.

Oro har, Bermeoko udalerrian ezin da kanpatu. Karabanek, berek trakzio-ibilgailuarekin, eta autokarabanek kanpatu dezakete, baina Udalak horretarako utzitako lekuetan; bi egun jarraian gehienez ere.

Autokarabana bat aparkatuta dagoela, eta ez kanpatuta, esango da kasu hauetan:

- Gurpilekin bakarrik ukitzen badu lurra. (Zenbait kasutan, malda edo alboko inklinazio handia dagoenean, gurpiletan euskarriak jar daitezke).
- Autokarabana itxita dagoela (leihoak itxita, mahai eta aulkirik gabe eta olana jasota) hartzen duen eremua baino handiagoa ez okupatzea.
- Emisio edo fluidorik ez bada sortzen (kutsakorra edo ez, motorraren errekuntza ihes-hoditik sortutakoa baino ez).



- Sabaia igotzea edo sabai-leiho irekitzea, ibilgailuaren perimetroa ez badute gainditzen.

Hala ere, kanpatuta dagoela esango da ekintza hauetako bat egiten badu:

- Aulkiak edo mahaiak ateratzea.
- Olanak hedatzea, leiho kulunkariak irekitzea edo ibilgailuaren perimetroa gainditzen duten elementuak jartzea.
- Egonkortzeko hankak jartzea.
- Fluidoak botatzea (ur garbiak, grisak edo beltzak).
- Gogaitzen duten zaratak egitea (hala nola elektrizitate sorgailu bat abian jartzea) atsedean orduetan.

Artikulu honetan adierazitako ibilgailuak, gehienez, hilabete bat egon daitezke toki berean.

Artikulu hauek ez badira betetzen, larritzat hartuko dira, berriro errepikatzeagatik, gertaeren larritasunarengatik, eta arau-haustea hauslearentzat hautsitako araua betetzea baino onuragarria ez izateagatik salbu, izan ere, kasu horretan, oso larritzat hartu ahalko dira.

#### **109. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (93. artikulua, 1428/2003 ED)**

Bizikletak eta ziklomotorrak ezin izango dira aparkatu oinezkoen esparru gisa seinaleztatutako eremuetan, ez oinezkoen babesguneetan, espaloietan, lorategitan, ibiltokitan, plazatan, ezta trafikoak debekatuta daukan beste edonon ere, Ordenantza honen 98 n) artikuluan ezarritakoa salbu.

#### **110. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Egoerak gomendatzen duenean, halako ibilgailuak horretarako seinaleztatutako oinezkoentzako guneetan aparkatzeko baimena emango da. Aparkatzeko gune horietara oinez sartuko dira, eserlekuan jesarri barik, eta motorra geldituta daramatela, motorraren indarra espaloiarene desnibela gainditzeko soilik erabili ahalko dutelarik.

#### **111. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Ziklomotorrak baterian edo zeharka aparkatuko dira galtzada gainean, eta zabaleran gehienez 1,5 metro hartu ahal izango dira.

## II. TITULUA

### BIDE PUBLIKOEN ERABILERA

#### I. KAPITULUA

#### ZAMA-LANAK, EDUKIONTZIAK

#### **112. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 6/2015 ED)**

Udal Agintaritzak zamaletarako gordetako tokiak zehaztu eta seinaleztatuko ditu Gune horiek adierazten dituzten seinaleetan, zamaletan zer ordutan hasi eta amaitzen diren ez ezik, aparkatzea zein egunetan mugatzen den ere zehaztuko da. Alabaina, onar liteke lan horiek baimendutako gune eta ordutegietatik kanpo egitea, auzokideei eta bidetaren gainerako erabiltzaileei trabarik egiten ez bazaie.

#### **113. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (16. artikulua, 1428/2003 ED)**

1. Bide publikoetan salgaien zamaletan horretarako gordetako guneetan eta kasuan kasuko seinaleetan finkatzen diren ordutegietan egingo dira, tokiaren ezaugarriak eta ingurumariak aintzat hartuz Bideetatik kanpo egin behar dira zamaketa-lanak eta hustuketa-lanak.

Salbuespenez bada ere, lan horiek ezinbestez bidean egin behar badira, beste erabiltzaileen joan-etorriei arrisku nahiz enbarazu larri sortu gabe egin behar dira, arau hauek kontuan direla:



- a) Gelditzeko eta aparkatzeko ezarritako xedapenak bete egin behar dira. Eta horiez gain, herrian, udal-agintariak ordu eta leku egokiak zehazteko emandakoak.
  - b) Ahal dela, ibilgailuak galtzadaren bazterretik hurbilen duen aldetik egin behar dira lanok.
  - c) Lana ahalik eta azkarren egiteko bitarteko nahikoak jarri behar dira, premiarik gabeko zaratak eta enbarazuak saihestuz. Debekatu egiten da salgaiak galtzadan, bazterbidean zein oinezkoentzako guneeetan uztea.
  - d) Bai salgai gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsuak, zein mugitzeko edo zamatzekeko modu bereziak eskatzen dituzten salgaiak zamatuta edo husteko, lehengoez gain, gai hori arautzen duten xedapen berezietz arautuko dira.
2. Eguneko 22:00etatik 8:00etara bitartean debekatuta dago karga-deskargak egitea eta bai kuxkak, edukiontziak, materialak eta erremintak maneiatzea ere, berariazko baimenak izan ezik.
3. Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**114. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (16. artikulua, 1428/2003 ED)**

Debekatuta dago bide publikoak galtzadatik zama daramaten ibilgailuak zirkulatzea. Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**115. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (16. artikulua, 1428/2003 ED)**

Ibilgailuren batek karga-deskargetako aparkalekuetan egingo duen egonaldia egiteko horiek burutzeko behar bestekoa izango da eta karga-deskargak egingo dituen ibilgailua inondik inora ezin egongo da bertan ezeri ekin gabe. Hori, aparkalditzat hartuko da. Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**116. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (16. artikulua, 1428/2003 ED)**

Zama-lanetarako erreserbatutako lekuetan eta ordu-mugen barruan, merkantzien garraiorako prestatuak dauden ibilgailuek, soilik, aparkatu ahal izango dute. Ibilgailu horiek aurrealdeko haizetakoan eskumena duen agintaritzak luzatutako garraio-txartela erakutsi beharko dute.

**117. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (16. artikulua, 1428/2003 ED)**

Eta berariazko lizentzia, udal agintaritzak behar bezala luzatutakoa agerian daukaten ibilgailuak ere baimenduak daude leku horietan aparka daitezen, garraioan ez badihardute ere, esateko moduan, asistentzia medikokoak, elbarrienak. Ibilgailu horiek zamalanetarako gordetako guneeetan aparkatu ahalko dute, baina gainerako erabiltzaileei ahalik eta trabarik gutxien eginez.

**118. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Materialak biltzeko edo hondakinak jasotzeko edukiontziak, aurretiaz udalaren baimena lortuta, aparkatzeko debekurik edo ordutegi mugarik ez duten lekuetan soilik jarri ahalko dira, ongi aparkatutako ibilgailuen kanpoko lerroa gainditu barik. Arrazoizko zioak direla medio horrela ezin izango balitz, nahitaezko litzateke Udaltzaingoaren aldeko txostena izatea.

**119. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Edukiontzien lanorduetatik kanpo olanaz estalita egon beharko dute, bai ezarrita daudenean eta bai lekuz aldatu direnean, inork ezertxo ere sartu ezin izateko moduan, eta barruan utzitako materialak ezin ikus izateko eta bide publikoan, ez haizearen poderioz eta ez inoren ekintzaren bidez, ezin sakabanatu ahal izateko moduan.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**120. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Debekatuta dago asteburuetan, ostiraleko 17:00etatik asteleheneko 8:00ak arte, eta jaiegunetan, materiala pilatzeko edo obra-hondakinak biltzeko bide publikoetan edukion-tziak egotea edo luzaroan uztea.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**121. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (16. artikulua, 1428/2003 ED)**

Baimendutako gehiengo pisua 8 tonatik gorakoa daukaten ibilgailu guztiak, zamaturik zein zamarik gabe, ezingo dute herri barruan zehar zirkulatu ez halako maniobrarik egin; horretarako Udaltzaingoaren Buruzagitzaren baimena beharko dute.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**122. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Oinplano berriko eraikuntzak eraikitzean, obra lizentzia eskatzen dutenek obraren barruan zamalanetarako aparkalekua daukatela frogatu beharko dute.

Posible balitz, obretarako erreserbatutako aparkalekuak interesatuaren eskaeraz emango dira; eskatzaileak aldiz, txosten teknikoa aurkeztuta erakutsi beharko du obra barruan ez daukala inongo espaziorik erreserbatuturik.

**123. artikulua (12. artikulua, 6/2015 ED) (4. artikulua, 1428/2003 ED)**

Edozein arrazoigatik aparkamendua erreserbatzeak edo bide publikoa okupatzeak, udal baimen egokia izatea eskatzen du, eta Bermeoko Udaleko ordenantza fiskalean horretarako ezarrita dagoen tasa ordaintzea eragingo du.

**II. KAPITULUA****ESKOLA UMEEN ETA ADIN TXIKIKOEN GARRAIOA****124. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (9. artikulua, 1428/2003 ED)**

Administrazio emakida edo baimena duten enpresek egin dezakete soilik eskolako umeen edo adingabeen garraioa, hain zuzen ere lurreko garraioen antolamenduko arauetan xedatu denarekin bat etorritik, kasuan kasuko garraio erregularra edo pribatua egiteko ahalmena ematen duen baimena edo emakida. Bermeoko Udalak ere egin dezake garraio hori herri barrukoa denean, Umeen garraioen eta eskolako garraioen segurtasun baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan zehazten denaren arabera.

**125. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (9. artikulua, 1428/2003 ED)**

Erabilera bereziko garraio erregularrerako baimenean zehaztutakoak izango dira eskolako umeen edo adingabeen garraioko ibilbideak eta geralekuak. Aldez aurretik, geraleku horien kokapena jakinaraziko dio Bermeoko Udalari baimena eman behar duen organoak, herri barruko trafikoaren erregulazioan eskumena duen organoak; gainera, egokitzat jotzen dituen zuzenketak proposa ditzake. Hala ere, baimena eman ondoren Bermeoko Udalak egoki irizten badio herri barruko ibilbide edo geralekuren bat aldatzea-ri, horren berri emango dio baimena emateko organo eskudunari, aurretik emanda zuen baimena alda dezan. Umeen garraioan zein diskrezionalean geldialdiak galtzadaren eskuineko ertzetik albat hurren egingo dira, geratzeko eta abiatzeko maniobrak ahalik eta leunen eta bidaiarien osotasuna arriskuan jarri gabe. Debekatuta dago horretarako jarritako lekuez kanpo geldialdiak egitea.

**126. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (9. artikulua, 1428/2003 ED)**

Nahitaezkoa izango da garraioa egitean gutxienez adin nagusiko pertsona egoki bat izatea ibilgailuan, gidaria ez dena eta zerbitzua antolatzen duen erakundeak egiaztaturik dagoena, salbu eta pertsona hori garraiolariak egiaztatzea hitzartzen bada beren beregi. Pertsona horrek ibilgailuaren segurtasun-mekanismoen funtzionamendua ezagutu behar du, garraioak iraun bitartean adingabeak zaintzeko arduratuko da eta ibilgailuan





sartzeko eta irteteko modua zainduko du, baita hala denean ikasleak eskolatik eta eskolara laguntzeko ere honako kasu hauetan:

- a) Eskolako umeen errepideko erabilera bereziko garraio publiko erregularrak, noiz eta ibilgailuetako ikasleen heren bat gutxienez, edo gehiago, hamasei urtetik beherakoa denean eskola ikasturtea hasten den unean.
- b) Erabilera bereziko garraio erregularreko garraioaren baimenean hala zehaztuta badago, a) lerroaldeko garraioetan, eta nolana ere, hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasleak eramaten direnean. Hala denean, hezkuntzako behar bereziak dituzten ikasle horiei behar bezala laguntzeko lanerako beharrezko gaitasuna duen laguna izan behar da. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera laguntzaile bat beharrezkoa den kasuetan, ezingo da garraioa egin pertsona hori ibilgailuaren barruan ez badago, non eta garraioa ez egiteak adin txikikoentzat arrisku handiagoa sortzen ez duen. Hala ere, egoera hori errepikatzen bada, kontratua ez dela bete uler daiteke. Garraiolaria izango da betebehar hori beteitzeko arduraduna, kontratuan zehazturikoarekin bat etorritz ibilgailuko laguna jarri behar duena zein den aintzat hartu barik.

#### **127. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (48. artikulua, 1428/2003 ED)**

Eskola umeen garraiorako ibilgailuak, gehienez, 30 km/h-ko abiaduran ibili ahaliko dira Bermeoko udalerrian. Aurretik ezarritako muga horretan ez da kontuan hartzen oro har aplikatzekoak diren seinaleek ezarritako muga baxuagoak errespetatzeko betebeharra.

#### **128. artikulua (1507/2008 EDren 1. artikulua)**

Derrigorrezko aseguruaren inguruan indarrean dagoen legeria bete beharra kaltetu gabe, ikasleen edo haurren garraio orok aseguru osagarria eduki beharko du. Aseguru horrek inolako mugarik gabe estali beharko du bertan doazen pertsonak jasotako kalteengatik erantzukizun zibilaren zenbatekoa, beti ere garraioan erabiltzen diren ibilgailuen erabileraren eta zirkulazioaren ondorio direnean. Aseguru hori garraiolariak kontratatu beharko du.

#### **129. artikulua (1428/2003 EDren 9. artikulua)**

Eskola umeen eta adin txikikoen garraiorako ibilgailua garraiatzen duen orok honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Garraio eta adingabeen garraioaren segurtasun-baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuak agintzen duena bete duela egiaztatzen duen IAT txartela (indarrean, eta izapideak behar bezala eginda).
- b) Eskola garraiorako edo adingabeak eramaten diren ibilgailuetako gidariak, kasuak kasuko gidabaimen mota izan beharko dute.

### III. KAPITULUA

#### BIDAIARIEN GARRAIOA

#### **130. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (9. artikulua, 1428/2003 ED)**

Gehienez ere bederatzi eserleku (gidariarena barne) izanik abiapuntua edo helmuga udalerrian dituen eskatu ahalako garraioak, dagokion zerbitzua emateko, udalaren baimena beharko du.

### IV. KAPITULUA

#### BIDE PUBLIKOAN DEBEKATUTAKO ERABILERA

#### **131. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 6/2015 ED)**

Bide publikoetan ez dira utziko jolasak, dibertimenduak, jarduerak edo ekintzak, zirkulazioaren garapen arruntean eta bide-segurtasunean eragiten badute, edo oinezkoentzat edo egiten dutenentzat arriskutsua edo gogaigarria bada. Jarduera horiek Bermeoko



Udalaren baimena beharko dute, Udaltzaingoaren Buruzagitzaren aldeko txostenaren ondoren emango duena.

1. Aurreko paragrafoan aipatutako jardueren antolatzaileek dagokion baimena eskatu beharko dute, jarduera egin baino 15 egun lehenago gutxienez, noiz hasi eta amaituko den, zer ibilbide egingo duen eta garatzeko gainerako xehetasunak adieraziz.
2. Udalak ekitaldia egiteko baldintzak ezarriko ditu dagokion baimenean, Udaltzaingoaren buruzagitzaren proposamenen arabera. Jatorrizko eskaera aldatzea ekar dezakete.
3. Aipatutako ekitaldien antolatzaileek azpiegitura material eta pertsonaleko neurriak, eta horiek egiteko beharrezkoak diren segurtasun- eta seinaleztapen-neurriak hartu beharko dituzte.
4. Ezingo dute egin inolako filmaketarik, ez publizitate-dokumentalik, ez antzekorik, bide publikoan, eskumeneko udal zerbitzuen berariazko baimenik gabe.
5. Jakinarazpen sinple bat nahikoa izango da, filmaketak, oinezkoak igartzeko bideratutako eremuetan azalera txiki bat mugatu behar bada ere, ekipamendu elektronikoak erabiltzea ez badu behar, zirkulazioan ez badu eragiten eta lan-taldean, gehienez, hamabost pertsona badaude.
6. Seinalezatzeko, erreserbatzeko eta mugatzeko lanak antolatzaileen esku egongo dira. Dena den, dagozkion udal zerbitzuen zuzentarauak bete beharko dituzte.
7. Ekitaldia amaitutakoan, antolatzaileek neurri egokiak hartu beharko dituzte erabilgaitako seinaleak kentzen direla bermatzeko, baita tokia edo eragindako bidea garbitzen direla ziurtatzeko.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**132. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 6/2015 ED) (55. artikulua, 1428/2003 ED)**

1. Jendetza handia biltzen duten eta oinezkoei nahiz ibilgailuei traba eragin diezaieketen jaialdi, ekintza edo deialdiak egiteko, aldeztu aurretik udalaren baimena beharko da. Hala eta guztiz ere, baldin lekuan presente dauden agintaritzaren agenteek estimatzen badute egindako kalteak edo eragin litezkeenak askoz handiagoak izango lirakekeela baimena emateko zio izandako usteak baino, pertsonen edo ondasunen osotasuna arriskutan jarri, bertan ezeztatu ahal izango dute baimena eta ospakizuna bertan behera utzi.

2. Ordenantza honetan jasotzen diren eremuan edo denboran lehiatzeko helburua duten kirol probak, txirrindularitza martxak edo beste ekitaldi batzuk egiteko, Bermeoko Udalak egindako baimena beharko da, Udaltzaingoaren Buruzagitzaren aldeztu aurretik txostenaren ondoren.

3. Debekatu egiten da bide publikoetan edo erabilera publikoko bideetan abiadura-lehiaketak egitea. Baina, salbuespenez bada ere, izango da egiterik, aginpidea duen agintaritzak bideak horretarako mugatu eta gero.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**133. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Debekatua dago hirigunean zirkulazioa merkantzia arriskugarriak garraio darabiltzaten ibilgailuak; horiek dira 1-A, 1-B, 1-C eta 2 motetakoak, Estatuko Arautegiak, merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzea erregulatzen duenak, 1754/1976 dekretuaz onartutakoak ezarri bezala. Behingoaz, arautegiko 1 edo 2-A direnak ere erantsi beharra daukatenak.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**134. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Salbuespen moduan, halako ibilgailuei herri barrura sartzen utziko zaie, baldintza teknikoak egokienez ordenantza honetan jasotako neurriak betetzen dituztenean, eta hornidurarako edo ondo justifikatutako halabeharrezko arrazoiren batengatik sartu beharra dutenean.

**135. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 6/2015 ED)**

Debekatu egiten da bideetara gauzak edo gaiak bota, bertan utzi edo lagatzea, baldin eta, horrela, eroso zirkulatu, gelditu edo aparkatzea oztopatu edo arriskutsu bihurtzen bada, bideak eta bideetako instalazioak narriatzen badira, edo bideetan edo bide-inguruetan zirkulatu, gelditu edo aparkatzeko baldintza egokiak aldarazten badira.

Debekatu egiten da sua pitz dezakeen, eta, oro har, bide-segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein gauza bideetara edo bide-inguruetara botatzea.

Artikulu honen arau-hausteak arau-hauste larritzat hartuko dira.

**136. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (12. artikulua, 6/2015 ED)**

Debekatua dago ibilgailuak bide publikoan garbitzea eta txukuntzea.

**137. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Debekatuta dago bide publikoan zuzeneko salmenta egitea, merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen arau-haustea delako.

**138. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Udalak salaketa jarriko dio ibilgailuaren jabeari, herri bidean ibilgailuak saltzeko salmenta jarduera burutzen ari dela uste badu. Salaketa jarri ondoren berdin jarraitzen badu, ibilgailuentzako udalaren biltegira eramango da bere ibilgailua, eta bertan gordailatuko da.

Ibilgailua saltzen ari dela ulertuko da honako kasu hauetan:

1. Ibilgailua toki berean modu jarraituan aparkatuta dagoenean, eta salmenta iragartzen duen kartel edo bestelako seinaleren bat dutenean.
2. Ibilgailuan saltzailearekin harremanetan jartzeko telefonoa edo bestelako moduren bat adierazita dagoenean.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

## V. KAPITULUA

**MINUSBALIATUENTZAT GORDETA KO APARKALEKUAK****139. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

1. Bermeoko udalak udalerriko hainbat gunetan ezintasunen bat duten pertsonentzako beharrezko aparkalekuak jarriko ditu; hala, urritasun fisiko edo psikikoren bat duten eta aldi berean minusbaliotasun hori onartuta izan eta baimen-txartela duten pertsonak izango dira eskubide horren titularrak. Txartel horrek urriaren 17ko 256/1989 Dekretuaren I. eranskinean xedatzen dena beteko du.

2. Aparkatzeko txartela pertsonala da eta ezin izango zaio beste inori eman, eta titularra ibilgailuan eramaten denean edo ibilgailua pertsona minusbaliatu batek gidatzen duenean soilik erabili ahal izango da.

3. Txartelaren titularrak udaltzainen edo arlo horretan eskuduna den agintariaren jarraibideak bete beharko ditu.

4. Udaltzainek edo eskuduna den agintariak egiaztatuta erabilera-baldintzak bete ezean, txartela baliogabetu ahal izango da kontraesanezko prozedura egokiaren bidez, egokitu daitezkeen udalaren zigorrak ezarri behar baldin badira ere.

5. Txartela emateko baldintzak eten edo aldatzen direnean, interesdunak edo ondorengoek txartela itzuli beharko dute Udaltzaingoaren bulegoan edo bakoitzak bere udaleko Gizarte Ongizaterako bulegoan. Hala egin ezean, udaltzainek kenduko dizkiete txartelak titularreri.

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**140. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

Aparkatzeko txartelaren ezaugarriak eta erabilera-baldintzak:

1. Aparkatzeko txartelaren ezaugarriak abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoak dira.
2. Aparkatzeko txartela erabiltzeko, baldintza hauek bete beharko dira:
  - Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela titularrak ibilgailua gidatzen duenean edo bertan berori garraiatzen denean bakarrik erabili ahal izango da.
  - Aurreko leihatilako kristalaren ezkerrean jarri beharko da, txartelaren aurrealdea edo atzealdea ikusi ahal izateko moduan eta eskuduna den agintariei aztertzen utzi beharko zaie hala eskatzen dutenean.
  - Txartela horretarako seinaleztatuta dauden tokietan aparkatzeko baliozkoa izango da, baita aparkatzea debekatuta dagoen tokietan ere ezinbestekoa den aldiaren ondorengo salbuespenekin:
    - Oinezkoen eremuetan, nasetan edo espaloietan eta oinezkoen pasabideetan.
    - Geldialdia egitea debekatuta dagoen tokietan.
    - Ibiak edo larrialdietako irteerak oztopatzen dituzten tokietan.
    - Zirkulazioko bide kopurua murrizten duten tokietan («bigarren errenkadetan»).

Artikulu honetan ezarritakoa ez bada betetzen, arau-hauste larritzat hartuko da.

**141. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua)**

*Aparkatzeko txartelak baliotasuna izango duen lurralde-eremua*

Autonomia Erkidegoko udalek emandako txartelak, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuko 6. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoan baliozkoak dira, eta Europar Batasuneko estatu kide guztietan ere erabili ahal izango dira, erkidegoko udal bakoitzak ibilgailuen zirkulazioaren eta antolamenduaren arloan ezarritakoa dituzten baldintzetan.

**III. TITULUA****ARAU-HAUSTEEN TARIFIKAZIOA, MAILAKETA ETA ZIGOR APLIKAGARRIAK****KAPITULU BAKARRA****ARAU HAUSTEAK****142. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (74. artikulua, 6/2015 ED)**

1. Ordenantza honen aurkakoak diren ekintzak edo hutsegiteak administrazioko arau-haustek izango dira eta han ezarritako baldintzen arabera zehatuko dira.
2. Zigor legeetan tipifikatutako delituak edo faltak direnean, honako hauen arabera jardungo da:
  - Administrazioaren zehapen-prozeduran, administrazioa zer edo zer delitua edo falta penala ez ote den itxura hartuta baldin badago eta ofizios jazartzeko modukoa bada, dena delako administrazio-arduradunak fiskaltzari jakinaraziko dio, badaezpada inor auzipetu egin behar bada ere, eta jarduerak etetea erabakiko du.
  - Errua egotzi zaien pertsonak zigortzeko epaia eman duen zigor arloko prozesua amaitzen denean administrazio-prozedura erantzukizun-adierazpenik gabe artxibatu egingo da.
  - Absolutzio-epaia ematen bada edo zigor arloko prozedura erantzukizun-adierazpenik gabe bukaratzen duen beste ebazpen baten bidez amaitzen bada, betiere ebazpen hori egitatea ez egotean oinarrituta ez badago, zehatzeko administrazio prozedura bide penaletik zigortu ez denaren aurka hasi edo jarraitu ahal izango da.



Ematen den ebazpenak zigor arloko prozedura horretan egiaztatutako egitateen adierazpena errespetatu beharko du kasu guztietan.

**143. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua) (6/2015 EDren 74-75-76-77 artikulua)**

Aurreko paragrafoan aipatutako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

1. Arinak: Araua haustea da ordenantza honetan bertan eta 6/2015 Legegintzako EDn jasota datozen arauak urratzea, eta arau-hauste arina izango da larria edo oso larria ez dena, hau da, datozen paragrafoetan berariaz arau-hauste larri modura edo oso larri modura sailkaturik ez dagoena.

Bereziki, arau-hauste arina da bizikleten erabiltzaileek elementu eta jantzi islatzaileak ez erabiltzea, 6/2015 Legean ezarritakoaren arabera, eta aparkatzeko debekuko seinaleak ez errespetatzea.

2. Arau-hauste larriak dira, delituak ez direnean, ordenantza honetan ondoren datozenei buruz tipifikatutako jokabideak:

- a) Arauz ezarritako abiadura-mugak ez errespetatzea, edo tarte batean, arauz ezarritako abiadura-muga baino gehiagoko batez besteko abiaduran joatea, II. eranskinean jasotakoaren arabera (176. ART).
- b) Bidean obrak egitea, hasi aurretik trafikoaren erregulazioaz, antolaketa eta kudeaketaz arduratzen den agintariari jakinarazi gabe, eta agintari horrek obrei buruz egindako jarraibideei ez jarraitzea.
- c) Ordenantza honetako xedapenak ez betetzea pasatzeko lehentasunari, aurreratzei, norabide aldaketei edo itzultsibideei eta atzeraka ibiltzeari, zirkulazioaren noranzkoari, erreien eta bazterbideen erabilerari dagokionez eta, oro har, zirkulazioaren segurtasun edo arintasun arrazoiak direla eta trafikoaren ordenantza bereziak urratzea.
- d) Autobus-erreian, bihurguneetan, maldaren gainaldeetan, ezinduek bakarrik erabil ditzaketen aparkatzeko guneeetan, tuneletan, azpiko pasaguneetan, gurutzaguneetan edo beste edozein toki arriskutsutan edo zirkulazio larri oztopatu eta bereziki oinezkoentzako arriskua eragiten duen toki batean gelditzea edo aparkatzea.
- e) Arauzko argiak erabili gabe ibiltzea.
- f) Gidatzean soina jasotzen edo erreproduzitzen duten gailuei konektatutako entzungailu edo aurikularrak erabiltzea, bai eta gidatzerakoan etengabeko arreta murrizten duten beste gailu batzuk erabiltzea ere.
- g) Telefono mugikorreko gailuak, nabigatzaileak edo beste edozein komunikazio-sistema edo -baliabide eskuz erabiltzen gidatzea, bai eta radar edo zinometroak hautatzeko mekanismoak erabiltzea ere.
- h) Segurtasun-uhalik, umeei eusteko sistemarik, kaskorik eta bestelako babes-elementurik ez erabiltzea.
- i) Hamabi urtetik beherako adingabeekin ibiltzea ziklomotorren edo motozikleten bidaiari gisa, edo adingabeekin aurreko edo atzeko eserlekuetan, baimenduta ez dagoenean.
- j) Trafikoa zaintzen duten agintaritzaren agenteen seinaleak eta aginduak ez errespetatzea.
- k) Semaforoetako argi gorria ez errespetatzea.
- l) Stop edo utzi pasatzen seinaleak ez errespetatzea.
- ll) Bete beharreko administrazio-eskakizunak bete gabe ditugula-eta gure gida-baimenak baliorik ez izatea eta, hala ere, gidatzen ibiltzea. Espainiako erregelamenduetan datoz zehazturik eskakizun horiek.
- m) Zabarkeriaz gidatzea (inguruabarrak zehaztu beharko dira).



- n) Bidera edo haren ondora suteak edo istripuak eragin ditzaketen gauzak botatzea, edo zirkulazio librea eragozten dutenak.
  - ñ) Aurreko ibilgailura arteko segurtasun-tartea ez errespetatzea.
  - o) Araudiaren arabera ezarritako baldintza teknikoak betetzen ez dituen ibilgailu bat gidatzea, oso larri gisa kalifikatzen den kasuetan izan ezik, eta ibilgailuen ikuskapen teknikoari buruzko arau-hausteak.
  - p) Gidariak ez egiaztatzea ibilgailuaren matrikularen plakek ez dutela irakurtzea edo identifikatzea eragozten edo zailtzen duen oztoporik.
  - q) Agintaritzako agenteari, zirkulazio-istripu batean kaltetutakoek eskatuta, norbera nor den ez esatea eta ibilgailuaren datuak ez ematea, istripuan inplikaturik egonik.
  - r) Ondo egokitu gabeko edo erortzeko arriskua duen zamadun ibilgailuak gidatzea.
  - s) Ibilgailu bat gidatzea erabiltzeko baimenik gabe.
  - t) Zirkulatzeke baimena etenda duen ibilgailu bat gidatzea.
  - u) Ibilgailuaren okupazio gehiegizkoa egiten bada, baimendutako eserlekuen %50 handituz, gidaria zenbatu gabe.
  - v) Gidatzeko baimen edo lizentzia egokirik inoiz izan ez duenak ibilgailua gidatzea saihesteko betebeharra ez betetzea.
  - w) Ikasteko eta trebatzeko zentroen eta Barne Ministerioak edo autonomia-erki-degoetako eskumeneko organoek baimendutako gidariak aztertzeko zentroen baimen araubideari eta funtzionamenduari buruz ezarritako arauak ez betetzea, arau hauste oso larritzat har daitezkeenak izan ezik.
  - x) Autobide eta autobietan zirkulatzea horrelako bideetan ibiltzea debekatuta duten ibilgailuetan.
  - y) Paraleloan zirkulatzea galarazita duten ibilgailuekin.
3. Jokabide hauek dira arau-hauste oso larriak, delituak ez direnean:
- a) Arauz ezarritako abiadura-mugak ez errespetatzea, edo tarte batean, arau ezarritako abiadura-muga baino gehiagoko batez besteko abiaduran joatea, IV. eranskinean jasotakoaren arabera.
  - b) Gaizki antolatuta egoteagatik, zama bidera erori den ibilgailu batekin ibiltzea, gainerako erabiltzaileekin arrisku larria sortuz.
  - c) Arauz ezartzen direnak baino handiagoak diren alkohol-tasekin gidatzea, edo organismoan drogak izanda.
  - d) Ibilgailuen gidari guztien eta bideko gainerako erabiltzaileen betebeharrak ez betetzea, trafiko-istripuren batean inplikaturik egonda edo arau-hausteren baten eginda, hala nola alkohola edo organismoa drogak daudela detektatzeko ezartzen diren probak ez egitea.
  - e) Ausarkeriaz gidatzea (Inguruabarrak zehaztu behar dira).
  - f) Ezarritakoaren aurkako noranzkoan zirkulatzea.
  - g) Ibilgailuen baimendu gabeko lehiaketa eta lasterketetan parte hartzea.
  - h) Radar- edo zinemometro-inhibidoreak edo zirkulazioa zaintzeko sistemen funtzionamendu zuzena oztopatzeko beste edozein mekanismo instalatuta duen ibilgailu bat gidatzea.
  - i) Lurreko garraioari buruzko legedian adierazitako gidaldiak ehuneko 50 baino gehiago luzatzea edo atsedendaldiak ehuneko 50 baino gehiago laburtzea.
  - j) Arau-haustea egiten duen ibilgailuaren jabeak edo errentatzaileak arau-haustearen benetako arduraduna izan den gidaria ez identifikatzea, horrela egiteko agintzen zaionean, baldin eta identifikazioa egitea galarazten duen kausarik ez badago. Gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko enpresen kasuan, gidaria identifikatzeko betebeharra betetzeko, aurreikusitakoari jarraituko zaio.
  - k) Dagokion gidatzeko baimen edo lizentziarik gabe ibilgailu bat gidatzea.



- l) Ibilgailu batekin zirkulatzea administrazio-baimen egokirik ez badu, araudiaren arabera eskatutako betekizunak ez betetzeagatik baliozko baimenik ez badu edo zirkulazioa gaitzen dion administrazio-baimenaren baldintzak betetzen ez baditu.
  - ll) Baldintza teknikoak betetzen ez dituen eta bide-segurtasuna modu larrian kalte-tzen duen ibilgailu bat gidatzea.
  - m) Nahita, takografoaren edo abiadura-mugatzaillearen funtzionamendu arrunta aldatzen duten elementuak jartzea.
  - n) Bidean obrak dagokion baimenik gabe egitea, baita seinale iraunkorrak edo behin-behinekoak kentzea, ezkutatzea, aldatzea edo narriatzea.
  - ñ) Obra-seinalerik ez jartzea, edo indarreko arautegia ez betez egitea, bide-segurtasuna arrisku larrian jarriz.
  - o) Bide-segurtasunean eragin zuzena duten industri jardueri buruz ezarritako arauak urratzea.
  - p) Radar- edo zinometro-inhibidoreak edo zirkulazioa zaintzeko sistemen funtzionamendu zuzena oztopatzeko beste edozein mekanismo instalatzea ibilgailuetan.
  - q) Ikasteko eta trebatzeko zentroyen eta Barne Ministerioak edo autonomia-erkidegoetako eskumeneko organoek baimendutako gidariak aztertzeko zentroyen baimen araubideari eta funtzionamenduari buruz ezarritako arauak ez betetzea, irakasleen edo fakultatiboen prestakuntzan, irakaskuntzan erabilitako ibilgailuen egoeran, bide-segurtasunean zuzenean eragiten duten oinarrizko elementuetan eragiten dutenak, edo kontrol eta ikuskapen lanetan eragozpena ekartzen dutenak.
  - r) Kalteak eragitea bideko azpiegituran, edo zirkulazioan aldaketak eragitea, ibilgailuaren masa edo dimentsioengatik, dagokion administrazio-baimenik ez badago, edo haren baldintzak ez badira bete, eragindako kaltea konpontzeko bete-beharra dagoela kontuan hartu gabe.
4. Ibilgailu motordunak aseguratzeko bete-beharra ez betetzetik eratorritako arau-haustek beren berariazko legeriaren arabera erregulatu eta zigortuko dira. (6/2015 EDren 78. artikulua).

**144. artikulua (6/2015 EDren 80. artikulua)**

1. Arau-hauste arinak 90,00 euroko isunarekin zigortuko dira; larriak 200,00 euro arteko isunarekin eta oso larriak 500,00 euro arteko isunarekin.

Hala ere, abiadura-mugak ez errespetatzearekin loturiko arau-haustek azaroaren 23ko 18/2009 Legearen IV. eranskinean ezarritako zenbatekoarekin zigortuko dira.

2. Aurretik xedatutakoa gorabehera, zigorrak ezartzean hauxe hartu beharko da kontuan:

- a) 143.3.j) artikuluan - (77.j) artikulua 6/2015 Legea) ezarritako arau-hausteagatik zigorra aurreikusitakoaren bikoitza izango da isuna eragin zuen jatorrizko arau-hauste arinarentzat. Arau-haustea larria edo oso larria izanez gero, isuna hirukoitza izango da.
- b) 143.3.h) artikuluan - (77.p) artikulua 6/2015 Legea), jasotako arau-haustea 6.000,00 euroko isunarekin zigortuko da.
- c) 143.4. artikuluan - (77.ñ-o), artikulua 6/2015 Legea) jasotako arau-haustek 3.000,00 eta 20.000,00 euro arteko isunarekin zigortuko dira. Halaber, 143.4.e) artikuluan-(77.q) artikulua, 6/2015 Legea) jasotako arau-haustea eraginez gero, urtebetez kasuan kasuko baimena kentzeko zigorra ezarri ahal izango da. Baimena denbora batez kenduta dagoen bitartean, titularrak ezin izango du beste baimenik eskuratu jarduera bera burutzeko. Baimena kenduta dagoen bitartean jarduerak burutzeak lehenengo urraketa egitean beste sei hilabetez kentzea eragingo du; bigarren edo urraketa gehiago gertatuz gero, urtebetekoa izango da.

**145. artikulua (6/2015 EDren 87. artikulua)**

Puntuak kentzea eragiten duten arau-hausteen kasuan agente salatzaileak gidatzeko baimenaren datuak hartu eta eskuduna den organo zigortzaileari igorriko dizkio. Honek, zigorra irmoa denean, datuak, zigorra eta kendutako puntuak kasuan kasuko Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroari jakinaraziko dizkio.

**146. artikulua (6/2015 EDren 87. artikulua)**

Arau-hausleak ez badu egiaztatzen legezko egoitza Espainian duela, salaketa egin duen agenteak isunaren behin-behineko zenbatekoa finkatuko du, eta arau-hausleak dirua jartzen edo ordaintzen ez badu, gidariak salaketa egindako agenteak adierazitako tokira eraman eta ibilgetu egingo du ibilgailua. Isuna kreditu-txartelaren edo eskudirutan egin ahalko da, eta dena den, hasieran finkatutako isunaren ehuneko 50eko murrizketa egiteko aukera kontuan hartuko da.

**147. artikulua (6/2015 EDren 81. artikulua)***Zehapenen graduazioa*

6/2015 EDren IV. eranskinean eta 144. artikuluan ezarritako isunen zenbateko ekonomikoa %30 handitu daiteke honakoa kontuan hartuz; egitatearen larritasuna eta garrantzia; arau-hauslearen aurrekariak eta berrerorle izaera; bere buruarentzat eta bidearen gainerako erabiltzaileentzat eragin dezakeen arriskua eta proportzionaltasun-irizpidea.

Lehenago ezarritako mailakatzeko irizpideak, halaber, 143.3. artikuluan, n) eta r) arteko paragrafoetan, biak barne, ezarritako arau-hausteengatik zigorrei ere aplikatu ahal izango zaizkie.

**148. artikulua (6/2015 EDren 82. artikulua)***Arduradunak*

Lege honek erabakitakoaren aurkako arau-hausteen erantzukizuna arau-haustea suposatzen duen ekintzaren gauzatu duen pertsonari dagokio zuzenean. Hala ere:

- a) Gidari eta bidaiariko kaskoa erabiltzea eskatzen den edozein ibilgailuren gidaria, bidaiariak babesteko kaskoa ez erabiltzearen erantzulea izango da, baita eskatutako gutxieneko adina ez duten bidaiariak garraiatzeagatik ere.  
Halaber, ibilgailuaren gidaria haurrak eusteko sistemak ez erabiltzearen erantzule izango da, gidari profesionalak direnean salbu.  
Egitateak 18 urte baino gutxiagoko pertsona batek egiten baditu, bere gurasoak, tutoreak, hartzaileak eta legezko edo egitatezko zaintzaileak izango dira erantzule solidario, ordena horretan, haiei agindutako betebeharrak ez betetzeagatik. Betebehar horien barruan, adingabekoei egozten zaien administrazioko arau-hausteari aurrea hartzea sartzen da.
- c) Ibilgailua geldiarazten ez den kasuetan eta ibilgailuak ohiko gidari bat izendatuta duenean, arau-haustearen erantzulea ohiko gidaria izango da, gidaria beste pertsona bat zela edo ibilgailuaren lapurtu izana ziurtatzen duenean.
- d) Ibilgailua geldiarazten ez den kasuetan eta ibilgailuak ohiko gidaririk izendatuta ez duenean, titularrak edo epe luzeko errentariak identifikatutako gidaria izango da erantzulea.
- e) Ibilgailuak epe laburrez alokatzeko enpresetan ibilgailuaren errentaria izango da erantzulea. Errentariak bera gidaria ez dela adieraziz, edo pertsona juridikoa izanez gero, titularrarentzat ezartzen dituen betebeharrak egokituko zaizkio. Erantzukizun bera izango dute tailer mekanikoetako edo ibilgailuen salerosketarako establezimenduen titularrek horietan gordeta dauden ibilgailuekin eragindako arau-hausteengatik.
- f) Titularra, edo epe luzeko errentaria, Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan agertuz gero, ibilgailuaren agiriei, aldizkako ikuskapenei eta





zaintze-egoerari loturiko arau-hausteen erantzulea izango da edozein kasutan, akatsek ibilgailuaren segurtasun-baldintzei eragiten dietenean.

- g) Titularra edo errentaria, Trafikoko Buruzagitza Nagusiko Ibilgailuen Erregistroan agertuz gero, aparkatzeagatiko arau-hausteen erantzulea izango da, ibilgailuak ohiko gidari bat izendatuta duenean edo egitatearen erantzulea den gidari bat adierazten denean izan ezik.
2. Artikulu honetan ezarritakoa administrazio-eremuan ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzukizuna zehazteko bakarrik izango da.

#### IV. TITULUA

### BEHIN BEHINEKO NEURRIAK ETA BESTE NEURRI BATZUK

#### I KAPITULUA

#### 149. artikulua (6/2015 EDren 103. artikulua)

##### *Behin-behineko neurriak*

Zehapen-prozedura hasia agindu duen Alkatetzak arrazoitutako erabaki bidez zehapen-prozeduran egokitu daitekeen azken ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatuko duten behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu zehapen-prozedura bideratzen den edozein unetan.

#### 150. artikulua (6/2015 EDren 104. artikulua)

##### *Ibilgailua ibilgetzea*

1. Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzako agenteek, beren eginkizunez baliatuz, ibilgailua ibilgetu ahal dute, lege honetan ezarritako arauak ustez urratzearen ondorioz, baldin eta:
- a) Ibilgailuak zirkulatzeko administrazio-baimenik ez duenean, eskuratu ez delako edo, indarraldia amaituzat eman ondoren, baliogabetu egin delako, edo ibiltzeko baimenak ez direnean betetzen.
  - b) Ibilgailuak bide-segurtasunarentzako bereziki arriskutsuak diren akatsak dituztenean.
  - c) Gidariak edo bidaiariak babes-kaskoa edo haurrak lotzeko gailuak erabiltzen ez dituztenean derrigorrezkoa den kasuetan. Neurri hori ez zaie txirindulariei aplikatuko.
  - d) Alkohola, sorgogorriak edo drogak detektatzeko probak ez baditu egin nahi, edo emaitza positiboa ematen badute.
  - e) Ibilgailuak derrigorrezko aseguruia ez badu.
  - f) Araudian ezarritako gida denboran edo atsedendietan %50eko gutxitzea edo handiagoa ikusten bada, gidaria ordezkatu ez bada behintzat.
  - g) Ibilgailuaren okupazio gehiegizkoa egiten bada, baimendutako eserlekuen %50 handituz, gidaria zenbatu gabe.
  - h) Ibilgailuak araudiak ibilgailu mota bakoitzerako baimendutako gas, ke eta zarata mailak gainditzen dituztenean.
  - i) Kontrol tresnak manipulatu direneko susmoak baldin badaude.
  - j) Ibilgailuak mekanismoak edo sistemak ezarrita baldin baditu, trafiko agintarien zaintzari ihes egiteko, horiek beren zereginak burutzen ari direnean kontrol-neurrien bidezko irudiak jasoz.
  - k) C edo D motako baimena eskatzen den ibilgailu bat gidatzea, dagokion administrazio-baimena izan gabe.
  - l) 6/2015 EDko 39.4. artikuluan ezarritako kasuan.
2. Geldiaraztea bera eragin zuen zioa amaitzen denean altxatuko da.



3. Lehen ataleko h), i) eta j) paragrafoetan ezarritako kasuetan, ibilgetzea bakarrik kenduko da ibilgailua agintaritzako agenteak izendatutako tailer batera eramanda, dektatutako sistemaren edo manipulazioaren desagertzea egiaztatzen bada, edo dagoeneko baimendutako mailak ez badira gainditzen.

4. Lehen ataleko e) paragrafoan jasotzen den kasuan, ibilgailu motordunen zirkulazioaren erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

5. Ibilgailuaren geldiaraztea agintaritzako agenteek adierazitako tokian gertatuko da. Xede horietarako, agenteak, aukeratutako tokiraino ibiltzen jarraitzeko agindu ahal dio ibilgailuaren gidariari.

6. Ibilgailua lapurtzen edo titularraren borondatearen kontra ibiltzera behartzen den kasuetan, behar bezala justifikatuta badaude, ibilgailua ibilgetzearen ondorioz sortzen diren gastuak arau-haustea egin zuen gidariaren kontura izango dira. Hura ezean, ohiko gidariaren edo errentariaren kontura izango dira eta, haiek ezean, titularraren kontura. Ibilgetzeko neurria kentzeko gastuak ordaindu beharko dira aldez aurretik, errekurtsioa aurkezteko eskubidea eta Administrazioak neurri hori hartzea ekarri zuen arduradunari egozteko aukera gorabehera. Agenteek ibilgailuaren zirkulazio-baimena ken dezakete aipatutako gastuen ordainketa egiaztatu arte.

Lehen ataleko h), i) eta j) paragrafoetan ezarritako kasuetan, ikuskapenaren gastuak salatutakoaren kontura izango dira, arau-haustea egiaztatzen bada.

7. Ibilgetutako ibilgailua alokairuan erabili bada, ibilgailua ibilgetu ordez, arau-haustea debekatuta izango du ibilgailua erabiltzea.

### **151. artikulua (6/2015 EDren 105. artikulua)**

#### *Ibilgailua erretiratzea eta gordetzea*

1. Trafikoa kudeatzeaz arduratzen den agintariak, horretara behartuta dagoenak egin ezean, ibilgailua bidetik erretiratu eta ondorengo kasuetan ezartzen den lekuan gordeko du:

- a) Arriskua sortu, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioaren nahasmendu larriak eragin edo zerbitzu edo ondare publikoren bat hondatzen duen guztietan.
- b) Istripua izan badu eta ezin badu aurrera jarraitu.
- c) Ibilgailua geldiaraztea legez egokia izanda, ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe hura egiteko toki egokirik ez dagoenean.
- d) 104. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ibilgailu bat ibilgetuta egonik, ibilgetzea eragin duten arrazoiak eteten ez direnean.
- e) Ibilgailu bat udal-agintariek ezintasunen bat duten pertsonen erabiltzeko gordetako aparkatzeko gune bezala jarritako tokietan aparkatuta dagoenean, hori egitea baimentzen duen bereizgarria jarri gabe.
- f) Erabiltzaile zehatz batzuen zirkulaziorako edo zerbitzurako soil-soilik gordetako errei edo bide-zatietan ibilgailua aparkatuta dagoenean, eta zamalanetarako eremuetan.
- g) Udalak jarri dituen denbora-tarte baterako aparkalekuetan txartelik gabe baldin badago, edo ordaindu duena baino hiru bider denbora gehiago baldin badarama (udaleko ordenantzetan jarriko du zenbat ordaindu behar den).
- h) Zirkulazioa oztopatzen, zailtzen edo arriskua ekartzen dutenean.

2. Aurreko kasu horietan, baliteke ibilgailua ostutakoa izatea, edo besteren batek hartu izatea titularrak nahi gabe, baina, bestela —eta hala bada behar bezala egiaztatu beharko da—, titularrak berak, errentariak edo ohiko gidariak ordaindu beharko dituzte ibilgailua bidetik kentzeko gastuak: ibilgailua atzera berriz eskuratu baino lehenago beharko ditu ordaindu, bestela, ezingo du jaso. Horrek ez du esan nahi errekurtsioa jartzeko eskubiderik ez duenik, eta beste aukera bat ere badu: gastu horiek, gero, istripuaren arduradunari, edo ibilgailua bertan behera utzi duenari edo dena delako arau-haustea egin duenari ordainaraztea.



Agintaritza-agenteeek ibilgailuaren zirkulazio-baimena ken dezakete aipatutako gas-tuen ordainketa egiaztatu arte.

3. Administrazioak titularrari ibilgailua erretiratu eta gorde izana jakinarazi beharko dio 24 orduko epean. Jakinarazpena Bideetako helbide elektronikoaren bidez egingo da, titularrak halakorik izanez gero.

**152. artikulua (6/2015 EDren 105. artikulua)**

Ezin izango da ibilgailua gordailura eraman gidaria bertan badago eta ibilgailua krokatu aurretik egoera irregular hori amaitzeko neurri egokiak hartzen baditu. Horretarako, agintaritzako agenteak agindeia egingo dio ibilgailuaren alboan dagoen gidari, jabe edo ibilgailuaz arduratzen den pertsonari, egoera irregularra amai dezan. Pertsona hori ez badago edo, egon arren, agindutakoa betetzen ez badu, ibilgailua eramango da. Arazo hau burutan aterako da udaltzainak gidariari egingo dion identifikazioaz eta salaketaz beste, trafikoko arauak hausteagatik.

**153. artikulua (6/2015 EDren 105. artikulua)**

Ibilgailua ezingo da gordailura eraman barruan norbait duela. Baldin eta ibilgailu hori idokitzea beregain daukan udaltzainak gidariari edo egoileei aginduko balie barrutik bertatik ateratzea eta bere esanari jaramon egingo ez baliote harako haiek, ordena publikoari kalte handiagorik ez eragitearren, ibilgailua lekuz aldatzea beharreko segurtasuneko neurriak hartuta egingo litzateke, hura garraiatzean guztiz ibilgetzea aseguratzeko modukoak.

**154. artikulua (6/2015 EDren 7. artikulua) (6/2015 EDren 105. artikulua) (1428/2003 EDren 91. artikulua)**

Trafikoaren enbarazuen kausa larriak, ibilgailua garabiaz bide publikotik arrazoi den bezala idokitzeko bestekoak, hurrengoak dira:

- a) Ibilgailutik galtzadaren beste aldeko bazterrera arteko tartea, edo galtzada zeharkatzea debekatzen duen luzetarako marrara arteko tartea hiru metro baino txikiagoa denean; edo beste ibilgailuei pasatzen uzten ez zaienean.
- b) Behar den moduan geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailuren bati zirkulazioan sartzea galarazten zaionean.
- c) Eraikin batera sartu edo bertatik irteteko pasagunea normal erabiltzeko oztopo bada pertsona edo animalientzat edo, behar bezala seinaleztatutako ibietan, ibilgailuentzat.
- d) Ezindu fisikoentzako egokitutako pasaguneak normal erabiltzea oztopatzen denean.
- e) Seinale bidez, jiratzea baimenduta egonda, jiratzeko aukera eragozten denean.
- f) Galtzada erdian aparkatzen denean.
- g) Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez gain, oinezkoen, ibilgailuen edo animalien trafikoa arriskuan jarriz edo larri oztopatuz gelditu edo aparkatzen denean.
- h) Ibilgailua gutxienez hilabetez etengabe leku berean aparkatuta dagoela egiaztatzen bada, eta denbora-tarte hori ipini den lehenengo salaketatik egiazta badaitenke.
- i) Debekatutako lekuan aparkatua egona, trafikoa oztopatuz zirkulazio-dentsitate handiko bidean, udal ordenantzatan hola ezagutarazi beharrean.
- j) Halabeharreko irtenbide aurrean aparkatua egona, ikuskizun publikoetako lekuetan eta horiek egiten diren orduetan.
- k) Berariaz erreserbatutako lekuetan aparkatua egona, konparazio batera, obra, elbarri, udal zerbitzu, kontsulatu edo beste Udalak baimendutako edozertakoetan.
- i) Haren kontserbazioko estatua hainbateko arriskutsua izana, arrazoi den bezala, beraren ondotik dabiltzan bideazkoentzat.



- m) Ibilgailua aparkatuta, arrazoizko ziorik gabe, matxurarenik ez bada, soinu-alar-mari jo eragina egona, haren erantzulea idoro ezinda.
- n) Istripua izan badu eta ezin badu aurrera jarraitu.
- o) Ibilgailuaren beraren akatsak direla eta, ibilgetuta edo mugitu ezinik utzi baldin badute.

**155. artikulua (7. artikulua, 6/2015 ED) (105. artikulua, 6/2015 ED)**

Honako kasu hauetan ibilgailua kendu edo lekualdatu ahal izango da, baina bere jabeari inolako kostu ekonomikorik eragin gabe:

- a) Ibilbide batean edo eremu batean zuzen den bezala aparkatua egona, nondik pasa behar den jendea, dela segizioa edo martxa, dela prozesioa edo kabalkada, edo non egin behar den kirol saioren bat edo munta handiko jardueraren bat, agintaritzak baimendutakoa, ibilgailua bertatik kendu beharraren berri jabeari jakinarazi ezinda.
- b) Bide publikoa konpondu edo garbitu beharra egona, lekuan aparkatua dirauela nabarmen erasaten badio bertako segurtasunari edo osasungarritasunari.
- c) Bide bezala justifikatutako estualdiak behartua.
- d) Ibilgailua lapurtzen den kasuetan, Bermeoko udaltzainek hura aurkitu eta ibilgailuaren kargu egingo den titularra aurkitzerik ez dagoenean.

**156. artikulua (6/2015 EDren 105. artikulua)**

Kale-bideko ibilgailuak geldiarazi eta kentzeko zerbitzuen emateak, hala nola ibilgailu horiek gordeta uzteak, horretarako izendatutako lekuan, sortzen dituzten tasak dagokion Zerga Ordenantzak ezartzen dituenak izango dira. Ibilgailua geldiaraztea kendu eta itzuli ahal izango zaio titularrari edo baimendun pertsonari eta egoki diren tasak aurretik ordaindu ondoren, 151,2. artikuluan dauden ustezkoetan izan ezik.

Ibilgailuak kale-bidetik kentzearen ondorioz horretarako ezarritako lekuan gorderik utzita daudenean, gorderik uzteko zerbitzu emateak dagokion Ordenantzak ezartzen duen aipatu kontzeptuaz zorpidetuko ditu tasak. Aipatutako tasak zerbitzua ematea uzten den unean ordaindu beharreko autolikidazio araubidearen mendean jarriko dira, Toki Ogasunen Legean xedatutakoaren arabera, zergapekotzat jo daitezkeen zerbitzua ematea motibatu duten pertsona, erakunde edo Instituzioek ordaindu behar dutelarik.

**II. KAPITULUA****UTZITAKO IBILGAILUEN HONDAKIN TRATAMENDUA****157. artikulua (6/2015 EDren 106. artikulua) Ibilgailuaren hondakin-tratamendua**

1. Bermeoko Udalak ibilgailua Ibilgailuak Tratatzekeo Baimendutako Zentro batera eramatea agindu ahal izango du, desegin eta deskontaminatu dezaten, kasu hauetan:

- a) Ibilgailua ibilgetu edo bide publikotik erretiratu eta administrazioak gordailura eramane zuenetik bi hilabete baino gehiago pasa badira eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu.
- b) Hilabete baino gehiago baldin badarama toki berean aparkatuta eta, hondatuta dagoela-eta, ez badago bere kasa inora joateko moduan, edo matrikulak faltan baldin baditu.
- c) Ibilgailu bat barruti pribatu bateko istripu baten edo matxuraren ondorioz jasotzean titularrak bi hilabeteko epean erretiratzen ez duenean.

Ibilgailua lekuz aldatzeko agindua eman baino lehen, administrazioak titularrari lekuz aldatzeko eskatuko dio, hilabeteko epean erretiratu ezean, ibilgailuak tratatzeko baimendutako zentrori lekuz aldatuko dela ohartaraziz.

2. 1. ataleko c) paragrafoan aurreikusitako kasuan, lekuaren edo barrutiaren jabeak edo arduradunak Probintziako Trafikoko Buruzagitzari ibilgailuaren hondakin-tratamen-



durako baimena eskatu beharko dio. Horretarako, ibilgailuaren titularrari bere barrutitik erretiratzeko eskatu izana ziurtatzen duen agiriak aurkeztu beharko ditu.

3. Bidezkotzat jotzen den kasuetan, Alkateak edo eskuordetzaz dagokion agintariak, ibilgailuaren hondakin-tratamenduaren ordeztu, trafikoa zaintzeko zerbitzuei adjudikatzea erabaki ahalko dute, esparru bakoitzean.

### III. KAPITULUA

#### ADMINISTRAZIO BAIMENEN GAITASUNEN MURRIZKETAK

##### **158. artikulua (6/2015 EDren 107. artikulua)**

*Administrazioaren baimenetako gaitasunen murrizketak*

1. Gidatzeko baimen edo lizentzia baten titularrak ezin izango du Trafikoko Buruzagitzaren Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan dituen ibilgailuei loturiko izapiderik egin gidariaren historialean arau-hauste larriak edo oso larriak egiteagatik administrazio-bidetik jarritako lau zigor irmo ordaindu gabe dituenean.
2. Ibilgailu baten titularrak ezin izango du ibilgailuari loturiko izapiderik egin gidariaren historialean arau-hauste larriak edo oso larriak egiteagatik administrazio-bidetik jarritako lau zigor irmo ordaindu gabe dituenean.
3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren salbuespena ibilgailuen aldi bateko edo behin betiko bajaren izapidea izango da.

##### **159. artikulua (6/2015 EDren 60. artikulua)**

*Administrazio-baimen baten titularren helbidea eta bideetako helbide elektronikoa*

1. Gidatzeko edo ibilgailuen zirkulaziorako administrazioaren baimena duen titularrak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko Erregistroei bere helbidea jakinaraziko die. Dituen baimen guztien jakinarazpenak egiteko erabiliko da. Horretarako, udalek eta Zergen Administrazioarako Estatuko Agentziak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari ziurtatuta dituzten helbide berriak jakinarazi ahal izango dizkiote.
2. Ibilgailu bakoitzaren historialean, gainera, ibilgailuarekin loturiko zergak kudeatzeko bakarrik erabiliko den helbidea jaso ahal izango da.
3. Lehenengo atalean ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak, gainera, gidatzeko edo ibilgailuen zirkulaziorako administrazioaren baimenaren titular guztiei, baimena eskuratu aurretik, Bideko Helbide Elektronikoa bat emango die. Helbidea titularrek Trafikoko Buruzagitzaren Nagusiaren Ibilgailuen eta Gidarien Erregistroetan dituzten baimen guztiei emango zaie automatikoki.
4. Bideetako Helbide Elektronikoa Trafikoko Buruzagintza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan jasota dagoen epe luzeko errentariari ere emango zaio, erregistroan sartu aurretik.
5. Hala ere, baimenaren titularra pertsona fisikoa bada Bideko Helbide Elektronikoa bat bakarrik emango zaio borondatez eskatzen duenean. Kasu horretan, jakinarazpen guztiak Bideko Helbide Elektronikoa horretan egingo dira 6/2015 EDren 90. artikuluan ezartzen denaren arabera, herritarrak zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko arautegian ezarritakoa gorabehera.
6. Bideetako Helbide Elektronikoa Ordenantza honetan jasotako administrazioaren baimenekin loturiko abisua eta gertaerak jakinaraziko dira.

**V. TITULUA  
ZEHAPEN PROZEDURA****I. KAPITULUA****160. artikulua (6/2015 EDren 84. artikulua)**

Ordenantza honetan araututa dauden eta arau-hausteengatik hasitako espedienteen izapidetzea Udaltzaingoaren Buruzagitzak burutuko du eta behin amaituta, Alkate-Udalburuak edo eskuordetu duten organoak egoki irizitako ebazpena emango du.

**161. artikulua (6/2015 EDren 83. artikulua)***Prozeduraren bermea*

1. Ordenantza honetan tipifikatu diren urraketen karia ezin izango da inolako zigorrik ezarri kapitulu honetan eta osagarri bezala, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko araudian ezarritakoaren arabera bideratzen den prozeduratik kanpo.

2. Trafikoko arauak hausteagatik salaketak egiteko erabiltzen diren tresnei, aparatuei edo bitartekoei eta neurtzeko sistemei kontrol metrologikoa egingo zaie metrologiari buruzko arautegiak ezarritako baldintzetan.

**162. artikulua (6/2015 EDren 84. artikulua)***Eskumenak*

1. Ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duten eta herri barruko bideetan egindako arau-hausteak zigortzeko eskumena Bermeoko udaleko alkateari edo haren eskuordetza duen pertsonari egokitzen zaio. Herriarteko bideetan egindako arau-hausteak direnean, horiek zigortzeko eskumena, hala denean, Bizkaiko Trafikoko Lurraldeko Bulegoari egokituko zaio.

2. Trafikoko Lurraldeko Bulegoek Alkateen eskumena beren gain hartuko dute, justifikatutako arrazoiengatik edo udal zerbitzuak nahikoak ez izateagatik, haiek ezin badute.

**163. artikulua (6/2015 EDren 85. artikulua)***Zigor arloko administrazio eta jurisdikzio jardunak*

1. Administrazioaren zehapen-prozeduran, administrazioa zer edo zer delitua edo falta penala ez ote den itxura hartuta baldin badago eta ofizioz jazartzeko modukoa bada, dena delako administrazio-arduradunak fiskaltzari jakinaraziko dio, badaezpada inor auzipetu egin behar bada ere, eta jarduerak etetea erabakiko du.

2. Errua egotzi zaien pertsonak zigortzeko epaia eman duen zigor arloko prozesua amaitzen denean administrazio-prozedura erantzukizun-adierazpenik gabe artxibatu egingo da.

3. Absoluzio-epaia ematen bada edo zigor arloko prozedura erantzukizun-adierazpenik gabe bukarazten duen beste ebazpen baten bidez amaitzen bada, betiere ebazpen hori egitatea ez egotean oinarrituta ez badago, zehatzeko administrazio prozedura bide penaletik zigortu ez denaren aurka hasi edo jarraitu ahal izango da.

Ematen den ebazpenak zigor arloko prozedura horretan egiaztatutako egitateen adierazpena errespetatu beharko du kasu guztietan.

**164. artikulua (6/2015 EDren 86. artikulua).—Hastea**

1. Zehapen-espedientea lege honetan tipifikatutako arau-hausteak izan daitezkeen egitateen berri duen agintaritza eskudunak hasiko du ofizioz, bere ekimenez edo trafikoa zaintzeko eta bideko segurtasuna kontrolatzeko zerbitzuaren ardura duten agenteek edota egitateen berri badakien edozein pertsonak egindako salaketaren bidez.

2. Hala ere, trafikoa zaintzeko zerbitzuaren ardura duten agintaritzako agenteek egindako salaketa, pertsona salatuari berehala jakinarazten diotena, zehapen-espedientea hasteko egintza da, ondore guztietarako.



3. Ez da zehapen-prozedurarik hasiko, edo hura hasita, artxibatu egingo da, inguruabar hauetako bat badago eta espedientean behar bezala egiaztatuta geratzen bada:
- Arau-haustea, artatutako pertsonarentzat arriskua ekartzen duen larrialdi mediko bat artatzeko egin bada, edo artatze medikoan atzeratzeak egindako arau-haustearen aurrean ondorio neurrigabeak ekar baditzake.
  - Arau-haustea larrialdi bat edo oinarrizko hornidurekin (hala nola edateko ura eta energia-hornidura) zerikusia duen matxura bat artatzeagatik egin bada.
  - Arau-haustea hirugarren bati laguntzeko betebeharra betetzearen ondorioz gertatu bada, betebeharrak horri uko egiteak arriskua ekartzen badu hirugarren baten zatitza, edo hirugarrenari laguntzean berandutzeak ondorio neurrigabeak ekartzen baditu egindako arau-haustearen aurrean.
  - Arau-haustea istripu edo matxura baten ondorioz gertatzea, betiere atestatua edota inplikaturako ibilgailuaren kontura errepidean egiten diren zerbitzuak egiten amaitu arte nahitaezkoa den denbora ez bada gainditzen.
  - Arau-haustea egin den unean, ezinbestean saihestezina izan bada, arau-haustearen borondatek edota behar bezalako arduratik kanpo.
  - Salatutako ekintza, administrazio-baimen batekin lotuta egotea, eta tolerantzia tarte kronologiko edo fisiko batek eraginda.

**165. artikulua (6/2015 EDren 87. artikulua).— Salaketak**

- Trafikoa zaintzeko ardura duten agintaritzako agenteek bideko segurtasuna zaintzeko eta kontrolatzeko funtzioak burutzen dituztenean antzematen dituzten arau-haustek salatuta beharko dituzte.
- Zirkulazioko salaketetan, honako datu hauek agertu behar dira, edozein kasutan:
  - Ustezko arau-haustea egitean erabilitako ibilgailuaren identifikazioa.
  - Salatuaren nortasuna, jakinez gero.
  - Egitatearen azalpen laburra, lekua edo zatia, eguna eta ordua adieraziz.
  - Salatzailearen izena eta helbidea edo, agintaritzako agente bat izanez gero, haren lanbideko identifikazio-zenbakia.
- Agintaritzako agenteek salatuari berehala jakinarazten diote salaketa, honako hau ere jaso beharko da, 6/2015 EDren 86. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako:
  - Ustez egindako arau-haustea, egoki dakiokkeen zigorra eta arau-haustea egitearen ondorioz kendutako puntu-kopurua.
  - Zigorra ezartzeko eskumena duen organoa eta organoari eskumen hori ematen dion araua.
  - Pertsona salatuak zigorra berehala ordaintzen badu, ordaindutako zenbatekoa eta 6/2015 EDren 94. artikuluan aurreikusitako zigorra ordaintzearen ondorioak ere adierazi beharko dira.
  - Zigorra unean bertan ez bada ordaintzen, salaketa horrek zehapen-prozedura hasten duela eta ordainketa egiteko hogeit hamar egun natural dituela adierazi beharko du, 6/2015 EDren 94. artikuluan ezarritako ondorio eta murrizketarekin, edo alegazioak egiteko eta egokitzeak jotzen dituen probak proposatzeko. Hala denean, horiek aurkez daitezkeen lekuak, bulegoak edo egoitzak adieraziko zaizkio pertsona salatuari.
  - Aurreko paragrafoan adierazitako epean alegaziorik aurkeztu edo isuna ordaindu ezean, adierazitako epea amaitzen den egunaren biharamunean prozedura bukatutzat emango dela adieraziko da, 6/2015 Legearen 95.4 artikulua ezarritakoaren arabera.
  - Interesdunak, hala denean, jakinarazpenetarako adierazten duen helbidea. Helbide hori ez da kontuan hartuko pertsona salatuak Bideetako Helbide Elektronikoa izanez gero; hori guztia, herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbide elektronikoari buruzko arautegian aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe.



4. Puntuak kentzea eragiten duten arau-hausteen kasuan agente salatzaileak gidaizteko baimenaren edo lizentziaren datuak hartu eta eskuduna den organo zigortzaileari igorriko dizkio. Honek, zigorra administrazio-bidean irmoa denean, datuak, zigorra eta kendutako puntuak kasuan kasuko Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroari jakinaraziko dizkio.

5. Arau-hausleak ez badu egiaztatzen legezko egoitza Espainian duela, salaketa egin duen agenteak isunaren behin-behineko zenbatekoa finkatuko du, eta arau-hausleak dirua jartzen edo ordaintzen ez badu, gidariak salaketa egindako agenteak adierazitako tokira eraman eta ibilgetu egingo du ibilgailua. Isuna kreditu-txartelaren edo eskudirutan egin ahalko da, eta dena den, hasieran finkatutako isunaren ehuneko 50eko murrizketa egiteko aukera kontuan hartuko da prozedura murriztuan.

6. Gertatu denak ez badu zirkulazioarekin zerikusirik, salaketan, zer gertatu den garbi-garbi azaltzeko beharrezko datu guztiak jaso beharko dira.

#### **166. artikulua (6/2015 EDren 88. artikulua)**

Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzako agenteek jarritako salaketek, aurkakoa frogatu ezean, salatutako egitateen eta arau-haustea egin dutenen identitatearen fede emango dute, baita, hala denean, salaketaren jakinarazpenarena ere; hori guztia salatutako egitatea frogatzeko elementu guztiak emateko betebeharraren kaltetan izan gabe.

#### **167. artikulua (6/2015 EDren 89. artikulua).— *Salaketaren jakinarazpena***

1. Salaketak berehala jakinaraziko zaizkio salatuari.
2. Hala ere, ondorengo egoeretakoa bat ematen denean, beranduago jakinarazi ahal izango da:
  - a) Salaketa ibilgailua gelditzea zirkulazioarentzat arriskutsua izan daitekeen egoeretan jartzen denean. Hala denean, agenteak jakinarazpena eragozten duten arrazoi zehatzak aipatu beharko ditu.
  - b) Salaketa ibilgailua aparkatuta dagoenean jartzen denean, gidaria bertan ez dagoenean.
  - c) Ibilgailua identifikatzea ahalbidetzen duten irudiak hartzeko eta erreproduzitzeko bitartekoen bidez izatea arau-haustearen berri.
  - d) Salaketa egiten duen agentea trafikoa zaintzen, kontrolatzen, arautzen edo diziplina-lanak egiten egotea, eta ibilgailuari jarraitzeko baliabiderik ez izatea.

#### **168. artikulua (6/2015 EDren 90. artikulua).— *Salaketen jakinarazpenaren jardunak***

1. Beremeoko Udalak berehala entregatzen ez diren salaketen eta Bideetako Helbide Elektronikokoan zehapen-prozedurak sortzen dituen gainerako jakinarazpenen berri emango du. Pertsona salatuak Bideetako Helbide Elektronikoa izan ezean, jakinarazpena prozedurarako beren beregi adierazitako helbidean egingo da, eta hala izan ezean, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Erregistroetan azaltzen den helbidean.

2. Bideko Helbide Elektronikoko jakinarazteko sistemak jakinarazi beharrekoa pertsona salatuari zein egunetan eta ordutan jakinarazi zaion ziurtatzea ahalbidetuko du, baita jakinarazpenaren edukia eskuratzea ere; une horretatik aurrera jakinarazpena legezko ondore guztietarako burutu dela ulertuko da. Jakinarazpena helbide elektronikora heldu dela egiaztaturik dagoela, egutegiko hamar egun igarotzen badira hartzaileak jakinarazpenaren edukia atzitu gabe, jakinarazpena hartzeari uko egin zaiola uste izango da, salbu eta, ofizios edo hartzaileak eskaturik, arrazoi tekniko edo materialengatik atzipena ezinezkoa izan dela frogatzen denean. Hala jasoko da zehapen-espeditentean, eta jakinarazpen-saioaren zer-nolakoak zehaztuko. Horrekin, izapidea gauzatzat joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.

3. Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago une horretan, edozeinek har dezake, baldin eta nor den jasota uzten badu. Jakinarazteko arduraren inork hartzen ez badu, inguruabar hori zehapen-espeditentean jasoko da, jaki-





narazteko ahalegina egin zeneko egunarekin eta orduarekin batera, eta ondorengo hiru egunetan berriz ere jakinarazteko ahalegina egingo da. Hala ere entregatzea ezinezkoa denean, izapidea burutuzat joko da eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Interesduna helbidean egonik jakinarazpena baztertuz gero, bazterketa zehapen-espedientean adieraziko da, jakinarazteko egindako ahaleginaren inguruabarrak zehaztuz; izapideak burutuzat joko dira eta prozedurari ekingo zaio.

**169. artikulua (6/2015 EDren 91. artikulua).— «Estatuko Aldizkari Ofizialean» (EAO) egindako jakinarazpenak**

Bideko Helbideko Elektronikoan edo adierazitako helbidean egin ezin daitezkeen jakinarazpenak, prozedurarako berriaz adierazitako helbidean jakinaraziko dira. Helbiderik ez bada adierazi, Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren erregistroetan jasotzen den helbidean. Kasu horietan, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» (EAO) argitaratuko dira. Jakinarazpena EAOn argitaratu denetik hogeit hamar egun naturaleko epea pasatu ondoren, jakinarazpena egin dela ulertuko da; izapidea burutuzat joko da eta prozedurari ekingo zaio.

**(6/2015 EDren 92. artikulua).— Trafiko isunak argitaratzeko ediktu taula (Testra)**

1. Aldez aurretik, aurreko atalean adierazten diren jakinarazpenak Trafiko isunen ediktuen taulan (Testra) ere egin daitezke, eta Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren erakunde autonomoak kudeatuko du.

2. Testran duen funtzionamendua, kudeaketa eta argitalpena, datu pertsonalak babesteko arautegian eta herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbide elektronikoan ezarritakoaren arabera egingo da.

**170. artikulua (6/2015 EDren 93. artikulua).— Zehatzeko prozedura motak**

1. Salaketa jakinarazi ondoren, pertsona salatuak hamabost egun naturaleko epea izango du isuna murriztea eragiten duen borondatezko ordainketa egiteko, edo egokituz jotzen dituen frogak proposatu edo aurkezteko eta alegazioak egiteko.

Halaber, informazioa eta aholkuak lortzea indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketa edo eskaerak egitean bete beharreko baldintza juridiko eta teknikoei buruz. (39/2015 Legearen 53.1.f) artikulua.

Ibilgailua ez bada gelditu, titularrak, epe luzerako errentariak edo ohiko gidariak, hala badagokio, hogeit hamar egun naturaleko epea izango dute arau-haustea egin duen gidaria identifikatzeko. Haren aurka zehapen-prozedura bat hasiko da. Identifikazio hori, baliabide telematikoen bidez egingo da jakinarazpena Bideetako Helbide Elektronikoaren bidez egin bada.

Lehen paragrafoan adierazitako baldintzen arabera ordaintzen bada isuna, zehapen-prozedura murriztua jarraituko da, eta ez bada horrela egiten, zehapen-prozedura arrunta.

2. Zehapen-prozedura murriztua ez dira aplikatuko 77. artikuluan (6/2015 ED), h), j), n), ñ), o), p), q) eta r) letretan ezarritako arau-haustek.

3. Erantzukizun zibilari eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren aseguruari buruzko arautegian ezartzen den ibilgailua aseguratzeko betebeharra ez bada betetzen, lege honetan ezartzen diren bi zehapen-prozeduretako baten arabera zehatuko da.

4. Administrazio-prozedura erkideari buruzko arautegian ezarritako erregistro eta bulegoetan ez ezik, trafikoaren arloko zehapen-prozeduretatik etortzen diren alegazio, idazki eta errekursoak, dagokion salaketan edo zehapen-ebazpenean berriaz izendatutako erregistro eta bulegoetan aurkeztu ahalko dira.

Berriaz izendatu gabeko erregistro edo bulegoetan aurkezten badira, trafikoaren arloan eskumena duten organoek bidaliko zaizkie lehenbailehen.

**171. artikulua (6/2015 EDren 94. artikulua).—Zehapen-prozedura laburra**

Isunaren borondatezko ordainketa egin ondoren, salaketa entregatzen den unean zein jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hamabost egun naturaleko epean egin, zehapen-prozedura amaitutzat emango da ondorengo ondorioekin:

- a) Isunaren zenbatekoaren ehuneko 50eko murrizketa.
- b) Alegazioa egiteari uko egitea. Alegaziorik eginez gero, aurkeztu ez balira bezala izango da.
- c) Ordainketa egiten den egunean bertan prozedura amaitzea, beren beregi ebazpenik eman behar izateke.
- d) Administrazio bidea agortzea; administrazioarekiko auzien jurisdikzioan baino ezin izango zaio errekurtsua jarri.
- e) Administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea ordainketa burutzen den egunaren biharamunean hasiko da.
- f) Ordainketa egiten den unetik aurrera, zigorra irmoa izango da administrazio bidean, eta biharamunetik aurrera erabateko ondoreak izango ditu.
- g) Zigorra ez da aurrekari bezala kontuan hartuko Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan, arau-hauste larriak izan baina puntuak galtzea eragiten ez dutenak direnean.

**172. artikulua (6/2015 EDren 95. artikulua).—Zehapen-prozedura arrunta**

1. Salaketa jakinarazi ondoren, interesdunak hogeitun egun naturaleko epea izango du egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko eta bidezkoz jotzen dituen frogak guztiak proposatu edo aurkezteko.

2. Egindako alegazioek salaketa jarri duen agenteak ziurtatuta dituen datuez gain beste datu berri edo ezberdin batzuk aurkezten badira, eta baldin eta instrukzio-gileak beharrezkotzat jotzen badu, alegazio horiek agenteari igorriko zaizkio, hamabost egun naturaleko epean horri buruzko txostena egin dezan.

Nolanahi ere, egitateak kalifikatu eta aztertzeke eta balizko erantzukizunak zehazteko bidezkoz jotzen diren frogak guztiak praktikatzeko ebatzi ahal izango du instrukzio-gileak. Frogak praktikatzeko ukatuz gero, ukapen horren zioak eman beharko dira, eta zehapen-espeditentean jaso.

3. Prozeduraren instrukzioa bukatu ondoren, instrukzioa bideratu duen organoak ebazpen proposamena igorriko dio zigorrak ezartzeko organo eskudunari, egoki den ebazpena eman dezan. Interesdunari baino ez zaio emango proposamenaren berri, hamabost egun naturaleko epean alegazio berriak formulatu ahal izan ditzan, baldin eta zehapen-prozeduran jasotzen badira edo ebazpenean kontuan hartzen badira interesdunak aurkezten dituzenez beste egitate edo alegazio eta frogak batzuk.

4. Arau-hauste arinak, puntu-galera ekartzen ez duten arau-hauste larriak, edo arau-hauste oso larriak eta larriak badira, salaketa egiten den unean jakinarazten direnak, pertsona salatuak alegaziorik egiten ez badu edo salaketa jakinarazi osteko hamabost egun naturaleko epean isunaren zenbatekoa ordaintzen ez badu, salaketa horrek zehapen-prozeduraren ebazpen-egintzari doakion ondorea izango du. Kasu horretan, salaketa jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita hogeita hamar egun natural igaro ondorik betearazi ahal izango da zigorra.

5. Prozedura amaitutakoan, administrazio bidea ere bukatu egiten da eta zigorra arestion aipatu diren hogeita hamar egunak igarotzen diren egunaren biharamunetik aurrera betearazi ahal izango da.

**173. artikulua (6/2015 EDren 96. artikulua).—Zehapen-prozedura arrunteko errekurtsuak**

1. Zehapen-ebazpenak administrazio bidea bukaraziko du eta zigorra pertsona interesdunari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera betearazi ahal izango



da, ondore oro sorraraziz; bestela, hala gertatuz gero, 172.4. artikuluan adierazten den epea igarotakoan betearazi ahal izango da.

2. Zehapen-ebazpenen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hautaz, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Errekurtsoa zehapen-ebazpena ematen duen organoan aurkeztu beharko da; organo horrek izango du hura ebazteko eskumena.

3. Berraztertze errekurtsoa jartzeak ez du aurkaratzen den egintza eta zigorra betearaztea etenaraziko. Errekurtsogileak betearazpena eteteko eskatzen badu, eskabi-dea ebazteke hilabeteko epealdia igarotakoan egonik, ukatu egiten dela ulertuko da.

4. Errekurtsoaren ebazpenean ez da kontuan hartuko jatorrizko prozeduran errekurtsogileak aurretiaz aurkezturik eduki dezakeen egitaterik, agiririk edota alegaziorik.

5. Artikulu honetan araupetu den berraztertze errekurtsoa gaitzetsi egin dela ulertuko da, baldin eta hilabeteko epean beren beregiko ebazpenik ematen ez bada; epealdi hori igaro ondorik, administrazioarekiko auzibidea zabalik geratzen da.

6. Alkateek egindako zehapen-ebazpenen aurka egitean, aurreko ataletan ezarritakoari jarraituko zaio, berariazko arautegian ezarritako zehapen-gaitasuna errespetatuz.

## II. KAPITULUA

### **ZEHAPENAK BETETZEA**

#### **174. artikulua (6/2015 EDren 108. artikulua)**

Zehapenak betetzea Behin zigorrak administrazio-bidean irmoak direnean, zigorrak betearazteari ekin ahal izango zaio indarreko araudian aurreikusitakoarekin bat etorritz.

#### **175. artikulua (6/2015 EDren 109. artikulua)**

Baimenak eteteko zehapena betetzea Ordenantza honetan araututako baimenak denbora batez kentzeko zigorra zigorrak berak administrazio-bidean irmotasuna hartzen duenetik zenbatzen hasita hilabeteko epean bete beharko da eta baimenen etenaldia kasuan kasuko erregistroetan jasoko da.

#### **176. artikulua (6/2015 EDren 110. artikulua).— *Isunak kobratzea***

1. Zehapena irmoa denean, interesdunak hamabost egun naturaleko azken epea izango du isuna ordaintzeko. Ezarritako epe hori amaitutakoan isuna ez badu ordaindu, premiamendu-prozedura hasiko da.

2. Bilketa exekutiboaren organoak eta prozedurak, aplikatzekoa den zerga-arautegian ezarritakoak izango dira, ezarri dituzten agintarien arabera.

#### **177. artikulua (6/2015 EDren 111. artikulua).— *Isunen ordainketaren erantzule subsidiarioak***

1. Arau-haustea egitean erabilitako ibilgailuen titularrak izango dira erantzule subsidiarioak gidariari ezarritako isuna ordaindu ezean, ondorengo kasuetan izan ezik:

- a) Ibilgailua lapurtu, ebatsi edo titularraren borondatearen aurka erabili dela ziurtatzen duen beste edozein modutara erabiltzean.
- b) Titularra gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko enpresa denean.
- c) Arau-haustea egin den unean ibilgailuak epe luzeko errentari bat izendatuta duenean. Hala denean, erantzukizuna errentariarena izango da.
- d) Arau-haustea egin den unean ibilgailuak ohiko gidari bat izendatuta duenean. Hala denean, erantzukizuna errentariarena izango da.

2. Erantzukizun subsidiarioaren adierazpenak eta horren ondorioek, baita kautelazko neurriak hartzeko aukerak ere, zergei buruzko arautegian ezarritakoa bete beharko dute.

3. Isuna ordaintzen duen erantzuleak arau-hausleari ordaindutako guztia itzularazteko eskubidea du.



## II. KAPITULUA

**AURREKARIEN PRESKRIPZIOA, IRAUNGITZEA ETA EZEZTATZEA****178. artikulua (6/2015 EDren 112. artikulua).— Preskripzioa eta iraungitzea**

1. Arau-haustea arina bada, hiru hilabetera preskribatuko da; larria eta oso larria bada, sei hilabetera.

Preskripzio-epaia egitateak egin diren egunetik zenbatzen hasiko da.

2. Preskripzio hori administrazioak aldez edo moldez diharduela etengo da, salautakoak jardute horren berri badu edo beraren nortasuna edo bizilekua ezagutarazteko bada eta beste administrazio, erakunde edo administrazioekin egiten bada. Egindako jakinarazpenarengatik ere etengo da 167., 168. eta 169. artikuluen arabera.

Preskripzioko epeari berrien berriz hasiera emango zitzaion prozedura hilabete baino gehiago egonean egon izan balitz salatutakoaren gain egotz ezin zitekeen kausagatik.

3. Prozedura hasi eta urtebeteko epean zigor-ebazpenik egin ez bada, prozedura iraungiko da, eta jarduerak artxibatu beharko dira, interesdunak eskatuta edo ebazpena emateko eskumena daukan organoak ofizioz erabakita.

Prozedura jurisdikzio penalak egitateen berri izateagatik eteten denean, iraungitze-epaia bertan behera geratuko da eta, behin ebazpen judiziala irmoa denean, iraungitze-epaiearen zenbaketa etetea erabaki zen unean zegoen denboratik abiatuko da.

4. Isunak ezartzen dituzten zigorren preskripzio-epaia lau urtekoa izango da eta 80. artikuluan ezarritako etenaldia urtebetekoa izango da, zigorra bide administratiboan irmo bihurtzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Administrazioak diru-isunak ezartzen dituzten zigorrak premiamendu-bidean ordaintzeko eskatzeko eskubidea dauka; hala, zergen inguruko arautegiaren arabera ezarriko dira.

**179. artikulua (6/2015 EDko 113. artikulua).— Oharrak eta ezeztatzeak**

1. Zigor larriak eta oso larriak eta puntu galera Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan jakinarazi beharko ditu zigorrak ezarri dituen agintaritzak, zigor irmoa ezartzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hamabost egun naturaleko epean.

2. Agintaritzak judizialek Gidarien eta Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Arau Hausleen Erregistroan jakinaraziko dituzte, zigorra irmotzat jotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hamabost egun naturaleko epean, motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzeko ebazpenen bidez ezartzen dituzten zigorrak bideko segurtasunaren aurkako delituak egiteagatik.

3. Ibilgailuen Erregistroan Espainian zein atzerrian matrikulaturiko ibilgailuek egindako zigor irmo larriak eta oso larriak eta horien isunak ordaindu ez izana ere azalduko da, hala denean, Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan. Ohar horiek, ibilgailuaren historialaren parte izango dira.

4. Zigorra erabat betetzen denetik edo iraungita geratzen denetik hiru urtera, anotazio horiek aurrekari-kontuetarako indarrrik gabe geratuko dira, ofizioz.

**180. artikulua**

Udalak, indarreko arautegi orokorrak izan dezakeen aldaketa kontuan hartuz, arau honetan ezarritako isunen zenbatekoa eguneratu ahalko du.

**181. artikulua (6/2015 EDren 110. artikulua)**

1. Zehapena irmoa denean, interesdunak hamabost egun naturaleko azken epea izango du isuna ordaintzeko. Ezarritako epe hori amaitutakoan isuna ez badu ordaindu, premiamendu-prozedura hasiko da.

2. Bilketa exekutiboaren organoak eta prozedurak, aplikatzeko den zerga-arautegian ezarritakoak izango dira, ezarri dituzten agintarien arabera.

**182. artikulua (6/2015 EDren 64. artikulua)**

Gidari bati, 6/2015 EDren II. eta IV. eranskinetan aipatzen diren arau-hauste larri edo oso larrietako bat egiteagatik, administrazio bidean zehapen irmoa jartzen bazaio, gidatzeko baimen edo lizentziako kreditutik kendu behar zaizkion puntuak automatikoki kenduko zaizkio zehapena Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Gidarien eta Arau-hausteen Erregistroan idazten den une berean. Erregistro horretan, gainera, jasota geldituko da zenbat puntu gelditzen zaizkion, guztira, baimenaren titularrari.

**183. artikulua (6/2015 EDren II. eranskina)**

Jarraian, arau-hausteen zerrenda dator. Arau-hauste bakoitzarengatik zenbat puntu galtzen diren ere badakar. Horrek esan nahi du gidatzeko baimenaren edo lizentziaren titularra, administrazio-bidean eta irmoki, arau-hauste horietakoren batengatik zehatzen badute, puntu-kopuru hori galduko duela:

## II. ERANSKINA

**PUNTUAK GALTZEA DAKARTEN ARAU-HAUSTEAK ARAU-HAUSTEA PUNTUAK**

Arau haustea	Puntuak
1. Araudiz ezarritako alkohol tasa gaindituta gidatzea: — Arnasetan 0,50 mg/l baino tasa handiagoa izanez gero (gidaria profesionala bada edo gida-baimena duela bi urte baino gutxiagotik badu, 0,30 mg/l). — Arnasetan 0,25 mg/l-etik 0,50 mg/l-era bitarteko alkohol- tasa izanez gero (gidaria profesionala bada edo gida-baimena duela bi urte baino gutxiagotik badu, 0,15etik 0,30era bitarteko tasa).	6 4
2. Organismoan drogak daudela gidatzea.	6
3. Organismoan alkohola edo drogak daudela detektatzeko probak egiteko betebeharra ez betetzea.	6
4. Ausarkeriaz gidatzea, kontrako noranzkoan gidatzea, edo baimendu gabeko lasterketan edo lehiaketetan parte hartzea.	6
5. Radar- edo zinemometro-inhibidoreak edo zirkulazioa zaintzeko sistemen funtzionamendu zuzena oztopatzeko beste edozein mekanismo instalatuta duen ibilgailu bat gidatzea.	6
6. Lurreko garraioari buruzko legedian adierazitako gidaldiak ehuneko 50 baino gehiago luzatzea edo atsedendialdiak ehuneko 50 baino gehiago laburtzea.	6
7. Gidariak, nahita, takografoaren edo abiadura-mugatzailearen funtzionamendu arrunta aldatzen duten elementuak jartzea.	6
8. Ibilgailu bat gidatzea, baina ibilgailu horretarako ez den beste baimen edo lizentzia batekin.	4
9. Bidera edo haren ondora suteak edo istripuak eragin ditzaketen gauzak botatzea, edo zirkulazio librea eragozten dutenak.	4
10. Pasatzeko lehentasunari buruzko xedapenak ez betetzea eta stop seinalean gelditzeko beharra ez betetzea, pasatzen ez uztea, eta argi gorria piztuta duten semaforoetan ez gelditzea.	4
11. Aurreratzeari buruzko lege-xedapenak ez betetzea eta kontrako noranzkoan datozenak arriskuan jartzea edo oztopatzea, edo gutxi ikusten denean edo gutxi ikusten den lekuetan aurreratzea.	4
12. Txirriindulariak arriskuan jarriz edo oztopatuz aurreratzea.	4
13. Noranzkoa aldatzea, baina lege honetako xedapenak eta erregelamenduetan jartzen duena bete gabe.	3
14. Autobide eta autobietan atzeraka ibiltzea.	4
15. Zirkulazioa arautzen duten agenteen seinaleak ez betetzea.	4
16. Aurreko ibilgailura arteko segurtasun-tartea ez errespetatzea.	4



Arau haustea	Puntuak
17. Entzungailuak edo gidatzean arreta murrizten duten bestelako tresnak erabiliz gidatzea, edo telefonia mugikorreko, nabigatzaileak edo bestelako komunikazio-sistemak eskuz erabiltzea. Teknologiarean aurrerapena aintzat hartuz, atal honetan jasotako tresnak mugatu ahalko dira.	3
18. Segurtasun-uhalik, umeei eusteko sistemarik, kaskorik eta bestelako babes-elementurik ez erabiltzea.	3
19. Gidatzeko administrazio-baimena etenda izanda gidatzea, edo gidatzen den ibilgailua erabiltzea debekatuta izatea.	4
20. Radarrak edo zinemometroak antzemateko mekanismoak erabiliz ibilgailuak gidatzea.	3

Ondorengo artikuluen taulan ezarritakoaren arabera kenduko dira gehiegizko abiadura gidatzeagatiko puntuak.

Puntu-galera bakarrik gertatuko da gidatzeko administrazio-baimena eskatzen den ibilgailu bat gidatzearen ondorioz kentzen badira puntuak.

#### **184. artikulua (IV. eranskina, 6/2015 ED). – II. Eranskina**

Gehiegizko abiadura eramateagatiko zehapen eta puntuen taula Zinemometro bidez hartutako gehiegizko abiaduragatiko arau-haustea

#### III. ERANSKINA

MUGA	20	30	40	50	60	70	80	90	100	110	120	130	Isuna	Puntuak			
Gehiegizko abiadura	Larria	21	31	41	51	61	71	81	91	101	111	121	131	100	—		
		40	50	60	70	80	90	100	110	120	130	140	150				
		41	51	61	71	81	91	101	111	121	131	141	151			300	2
		50	60	70	80	90	100	110	120	130	140	150					
	51	61	71	81	91	101	111	121	131	141	151	161	171	400	4		
60	70	80	90	100	110	120	130	140	150	160	170	180					
61	71	81	91	101	111	121	131	141	151	161	171	181	500	6			
70	80	90	100	110	120	130	140	150	160	170	180	190					
Oso larria	71	81	91	101	111	121	131	141	151	161	171	181	191	600	6		

Hirietara sartzeko hiri arteko autobien eta autobideen zatietan, 100 km/orduko baino gutxiagoko abiadura-mugak ezarri direnean, gehiegizko abiadura III. Eranskineko zigorren koadroan jasotako isun ekonomikoarekin zigortuko dira. Gainerako ondorio administratibo eta penalak, soilik ezarriko dira 100 km/orduko abiadura gainditzen denean eta muga horretarako ezarritako terminoetan.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

##### **Lehen Xedapen Gehigarria. – Indarrean jartzea**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik zenbatzen hasita 15 egunera sartuko da indarrean.

##### **Bigarren Xedapen Gehigarria. – Jakinarazpenak eta trafiko zehapenen ediktuen taula**

Bermeoko Udalak jakinarazpenak Bide segurtasunaren arloko helbide elektronikoen bidez egin ordez, bere plataforma informatikoetan egin ahalko ditu, haiek aukeratzen dituzten herritarrentzat. Kasu horretan, taulek elkarren artean jardun beharko dute, herritarrek, sarbide bakar baten bidez, haren gainean dituen zehapen-prozeduren edozein jakinarazpenen berri izan dezan. Bermeoko Udalak lankidetzaz hitzarmenak sinatu ahal-



ko ditu jakinarazpen telematikoak jakinarazpenetarako plataformen bidez eta Autonomia Erkidegoko Ediktuen Tauletan egiteko.

#### **Hirugarren Xedapen Gehigarria**

Ordenantza honen zehapenen taulan jasotzen ez diren arau-hausteei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak, Barne Sailaren bidez argitaratzen duen zehapenen (isunen) taulan ezarritakoari jarraituko zaio, 1428/2013 ED eta 6/2015 LEDk ezarritakoaren arabera.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

#### **Lehenengo Xedapen Iragankorra.— *Legea indarrean sartzean izapidetze lanetan dauden zehapen prozedurak***

Bermeko Udalaren Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantza indarrean sartzerakoan izapidetze-lanetan dauden zehapen prozedurak hastean indarrean zeuden arauak bukatu arte jarraituko dute, gidatzeko baimena eteteari eta puntuak galtzeari buruzko ondorio egokiagoak lortuko balira izan ezik. Prozedura horietan ezar daitezkeen zehapen-ebazpenen aurka hasieran indarrean zegoen arauan ezarritako errekurtsioak jarriko dira.

#### **Bigarren Xedapen Iragankorra.— *Motorren pareko hiru gurpildun ibilgailuen abiadura-mugak***

Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazio Erregelamendu Orokorra aldatzen den arte, eta motorren pareko hiru gurpildun ibilgailuen abiadura-muga finkatzen den bitartean, ibilgailu horiek bi gurpileko motorretarako araudi horretan ezarritako abiadura-muga berdinak izango dituzte.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bermeoko Hiribildurako Zirkulazio Ordenantza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2014/01/16an eta indargabetuta geratu dira Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka egiten duten maila bereko edo goragoko xedapenak. Ordenantza honetan arautzen ez den guztia 6/2015 Legean eta hura garatzeko arautegietan ezarritakoaren arabera arautuko da.